



■ ASTIGARRAGA

Euskal Jaia bihar Ergobian, urteurren festan

Urtea bete du Ergobi Gastronomi-Kultur Elkartek, eta ospatzeko, Euskal Jaia antolatu du biharko; goizeko 11:00etan hasita izango dira pintxoak, tailerrak, ipuinak...

GIROA jartzea da Ergobi Gastronomi-Kultur Elkartearen helburua, eta elkartea sortu zela urtebete bete den honetan, egun osoko festa antolatu du biharko; Euskal Jaia. Horrela, urtero egiteko asmoa ere azaldu dute. Biharkoa, denetik izango da, gerturatzen diren haur eta helduentzat: sukaldaritza tailerrak, ipuin kontaketak, Emarrerekin harri tira probatzeko aukera, pintxoak, dastaketak... Animatzeko egin dute dei. /13

■ ORDU ALDAKETA



Ordubietan, hirurak

Udaberrian sartuta, ordua aldatzeko garaia iritsi da. Gaur gauean ordubete aurreratu behar dira ordulariak; 02:00etan, 03:00ak izango dira. ||

■ HERNANI

Txistulari gazteak, lehian

Euskal Herri osotik etorritako txistulari gazteek hartuko dute parte gaur, Milagrosan egingo den Txistulari Gazteen Txapelketan; tartean, heraniarrek. /2

■ ASTIGARRAGA

AP8ra sarrera itxita, goizean

Goizeko 07:00etatik 10:00etara itxita egongo da Astigarragatik AP8 errepidera sarrera, babes hesiak jartzeko lanak medio. ||

■ GOIZUETA

Herri programaren berri gaur, EH Bilduk

Batzarra egingen du EH Bilduk 11:00etan, Unai Mirandaren hautagaitza eta herri programa aurkezteko. /15

GAUR KRONIKAN

Hernani /2-7

Agenda, Amher, Kirolak, Jasota Bezala, Gaztelekua...

Astigarraga /11-14

Plenoa, Agenda, DBH, Kirolak...

Urumea /15

Irakurzaletasuna, Ur Mia, bake epailea, odol emailak...

Telesailetan adi(k)tua /16



‘Lagun’ berria, Txurieneko zubiak

Atzo zabaldu zuten Elorrabiko zubi berria, oinez edo bizikletan pasatzeko. Horrela, ‘lagun’ berria dauka Txurieneko zubiak Osiñagan, baina berak segiko du izaten, azkeneko zubi ‘kolgantea’. /6-7

URTINEA
LORADENDA EZKONTZA ETA EKITALDIAK DEKOPAZIOA

Urdaiaga auzoa. 11
USURBIL
943 917 562

taegi edarietxea
DEGUSTAZIO DENDA

Asteartetik igandera
MOKADUTXOA KOPAREKIN BATERA
Ostegunetan eta ostiraletan berezia
11:30 - 13:30 / 19:00 - 21:00

Zatoz sulfitorik gabeko
ardoa naturala dastatzera!
Gipuzkoako osoan ez dago
horrelakorik!

Andre kalea 33, Hernani
943 12 84 03 / 681 394 083

2018 urtean 6 sari irabazi ditugu
lehiaketa herrikoitan

Kalitate handiko 4.600 sagarrondo
Tolara sagardotegia

EULA

Asteartetik ostiralera gauetz
Larunbatetan eguerdian eta gauean
Igandean eguerdian
Berogaikua

LATEGI AUZOA, 19. URNIETA
Hernaniko Portu auzotik 5 minututara

943 55 27 44

■ HERNANIKO TXISTULARI JAIALDIA



Euskal Herri osoko txistulariak elkartuko dira Hernanin, bihar goizean.

Txistu doinuak airera gaurtik, txistularien zita bereziarekin

Hernaniko Txistulari Jaialdia ospatuko dute, asteburu honetan. Gazteen Txapelketa izango da gaur, eta topaketa bihar.

TXISTUA izango da protagonista aurten ere, asteburu oso batez, Hernanin. 14garrenez egingo dute, gaur eta bihar, Hernaniko Txistulari Jaialdia. Hernaniko Musika Eskolako txistulariek eta 'Goizetik' Txistulari Taldeak antolatu dute, Euskal Herriko Txistulari Elkartearen laguntzarekin.

Txistulari Gazteen Txapelketarekin hasiko dute asteburua, gaur. Milagrosako kaperan izango da, bi txandatan. Goizeko 11:00etan hasita, aurrena, ariko dira A kategoriako bakarlariek (12 urte artekoak), eta B kategoriakoak (13-16 urte bitartekoak). Eta arratsaldeko 17:00etan hasita, taldeen txanda izango da. Ondoren, sariak banatuko dizkiete, kategoria guztietako txistulariei.

Guztira, 43 txistulari eta atabalar ariko dira, ia Euskal Herri osotik etorritakoak. Eta tartean, lau hernaniar ariko dira, Beñat Otamendi A kategorian; eta Julen Beraza, Enara

Arruti ereñotzuarra eta Manex Zabaleta, B kategorian zein taldeka, Txilibita taldea osatuz.

Epaimahaikide lanetan, ariko dira hiru txistulari gazte: Haritz Ezeiza hernaniarra, Peio Irigoien irundarra, eta Maite Sagastibeltza galdukoztarra. Leire Goñi txistulari eta kazetari hernaniarra ariko da aurkezle lanetan.

Euskal Herri osoko txistulariak, topaketan

Bihar borobilduko dute asteburuko festa, Txistularien Topaketarekin. Euskal Herri osoko makina bat txistulari elkartuko dira, goizeko 10:00etan Plazan; eta taldetan banatuko dira, Kaxkoko eta inguruko auzoetako kale eta plazak alaitzeko, txistu doinuekin. Hernaniko txistulariekin batera, beraz, ariko dira Usurbil, Donostia, Lasarte, Pasaia, Andoain, Irun, Oñati, Legazpia, Getaria, Portugalete, Elorrio, Bilbo, Barakaldo, Leitza, Iruña, Tafalla,

Tutera, Kanbo, Uztaritze edota Baionakoak, besteak beste.

Gero, berriro elkartuko dira, ttun-ttuna jotzeko Plazan, eta kalejira eta dantzarako doinuak Plaza Berrin. Eta urtero bezala, festa borobiltzeko, mahaiaren bueltan jarriko dute azkeneko zita: Iparragirre sagardotegian egingo dute, lagunarteko bazkaria. ■

TXISTULARI JAIALDIA

GAUR, larunbata

11:00, Txistulari Gazteen Txapelketa: 12 urteko bakarlariek (A kategoria), eta 13-16 urte bitarteko bakarlariek (B).

17:00, Txistulari Gazteen Txapelketa: Taldeak (D), eta sari banaketa.

BIHAR, igandea

10:00, Elkartzea, eta dianak Kaxkoan eta inguruko auzoetan.

12:30, Ttun-ttuna Plazan, eta kalejira eta dantzarako doinuak Plaza Berrin (eguraldi txarreakin, arkupeetan).

14:15, Lagunarteko bazkaria, Iparragirre sagardotegian.

☞ JASOTA BEZALA

A28ari boikota!

Politika zientzia bat da; horregatik, mundu osorako baliagarriak diren legeak, arauak eta printzipioak jasotzen ditu. Hala, ber, politika, jarduerak bada, eta ekintza horretan, nahiz eta bere printzipio orokorren teoria menperatu, badago asmatu ezinik aritzea. Zinez, horrela ikusten dut Euskal Herriaren praktika politikoa, nahi eta ezin batean urtzen, euskotarrak bihotzez gure barnean desira dugun askatasuna lortu ezinaren etsipenak jota.

Politikaria, batez ere, politikaren zientziak gain politikaren artea menperatzen duena da, alegia, errealitate konkretu bateko une bakoitzean jokatzen dakiena. Egiari zor, azken hamarkadako eginahalak utzitako uza ikusita... arte surrealista dirudi!

Errealitatea, gordinki, Getxon eta Errege Bardeetan oraintsu marraztu da (aurrez bere izaera egiaztatze sobera marrazki ez baleudel!), baina, indartsuenak ere ahulguneak ditu, eta sekretua aurkituta, bere atzapar artetik ihes egitea posible dugu.

Estrategia eraginkor batek,

lehenik, indarra metatu behar du. Euskal Herriak daukan ideia politiko bateratzaile bakarra lehenetsi behar dugu: askatasuna, independentzia, autodeterminazioa. Hiru adiera ezberdin ideia politiko berbera adierazteko. Bigarrenik, zapaltzaileari jaramonik ez egin eta erresistentzia nazionalari atxiki: 28ari bikota! Espainiar hauteskunde guztiak, Frantziar legez, gure zapalkuntza legitimatzeko tresna dira, beraz, jukutria horretan Herriaren partaidetza, ezinbestekoa duten laguntza oparitzea da. Hirugarrenik, boikotaren taktika hau debaldekoa da, Herria babestuta dago eta zapaltzaileak ezin gaitu ez zigortu ezta bere sisteman integratu. Kolapso totala!

Boikota areagotuz, inoiz baino errazago litzaiguke, Getxoko portuan, soil-soilik turistaz lepo datorren gurutzatzea baimentzea, eta Errege Bardeetako aireko espazioan, suntsipen handiko armez lepo datorren ehiza-hegazkinaren hegaldia debekatzea. Dudarik ez!

Iñigo Gallartzagoitia
Zorrotzua

■ SAGAR MOREAK

Afari feminista gaur, Herrigunean

Sagar Moreak taldeak antolatuta, gaur egingo dute Hernaniko Emakumeen III Afari Feminista. Gaueko 21:00etan izango da, Urumea Herrigunean, eta karaokea izango da afalostean. Baina aurretik, *Kaleak-HarDitzagun* ginkana feminista egingo dute, 19:00etan Plaza Berrin. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



AXIER SANTANO OKARIZ

*Bidai goxoa izan "Axi".
Ez ditugu begi haundi hoiek inoiz ahaztuko.
Asko maite zaitugu.*

BEÑAT, AMATXO ETA AITATXO

Hernanin, 2018ko martxoaren 30ean



**FUNERARIA
ORBEGOZO
BEILATOKIA**

Asegururik ba al duzu?
Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.

943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com

- * Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- * Beilatokiak
- * Errausketak
- * Lekualdatzeak
- * Eskelak, koroak...



Zentrala · Latsunbe 7, Hernani

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

■ GAZTELEKUA APIRILEKO AGENDA

Korrikarako prestaketa lanak eta Irrisarri Landera irteera, apirilean

Ekintza berezi ugari antolatu ditu Hernaniko Gaztelekuak, datorren hilabeterako. Irrisarri Landera joateko, aurrez eman behar da izena.

EGITARAU betea bezain berezia prestatu du Hernaniko Gaztelekuak, apirilera. Itxita egongo da Aste Santuko jaiegunean, hilaren 18tik 23ra; baina gainerako egunak, ondo aprobetxatuko dituzte.

Zenbait eskulan, joko eta pelikularen artean, Korrikarako prestaketak egingo dituzte aurreneko egunetan: muralaren diseinua prestatuko dute 6an, murala bera egingo dute 9an eta 10ean, eta Korrikako txapak prestatu 12an. Gau horretan pasako da Korrika, hain justu, Hernanitik.

Eta hortik aurrera, oporraldia aprobetxatuz, ekintza berezi ugari egingo dituzte gazteek.

Besteak beste, Ave Maria parkera joango dira 17an, aerorumba, bazkari musikatua eta slackline egitera, 11:00etan hasi eta 15:00ak arte. Eta 26an, Irrisarri Landera egingo dute irteera, egun osokoa, Gaztelekuak eta Kale Hezitzaileek antolatu-

ta. Izena eman behar da aurrez, Gaztelekuan bertan, eta epea zabalik dago.

Oporraldiko gainerako egunetan, ordutegia ere aldatuko da. Hiru orduko ekintzak beharrez, lau ordukoak izango dira, 16:30etatik 20:30etara. ||

APIRILEKO AGENDA

- 2, Eskulanak: brotze tailerra.
- 3 eta 4, Eskulan libreak.
- 5, Wii bideojokoa.
- 6, Korrikako muralaren diseinua.
- 7, Pelikula eta palomitak.
- 9 eta 10, Korrikako murala egitea.
- 12, Korrikako txapak.
- 13, Sukaldaritza: hummusa.
- 14, Pultsera tailerra.

- 15, Eskulanak: kamixeta tailerra.
- 16, Gaztelekua tunneatu.
- 17, Aerorumba, bazkari musikatua eta slackline, Ave Maria parkean.
- 18tik 23ra, Gaztelekua itxita.
- 24, Eskulanak: Tote-bag poltsak.
- 25, Sukaldaritza: muffinak.
- 26, Irrisarri Landera irteera. Izena eman behar da aurrez, Gaztelekuan.
- 27, Badminton.
- 28, Mini golfera irteera.

■ BERDINTASUNA



Amaia Rodriguez Oñatibia, astearteko aurkezpenean, liburua alboan duela.

Inudeei buruzko lana, eskuragarri

Asteartean aurkeztu zuen Amaia Rodriguez Oñatibiak, Berdintasun Arloko IV. Ikerketa Bekaren emaitza: *Biziraupenerako zaintza; Hernaniko inudeak 1900-1944* liburua. Lanari buruzko xehetasunak azaldu zituen egileak, eta orain, eskuragarri dago, Hernaniko bi liburutegietan: Leokadistin eta Elkarren, 10 euroan. ||

■ KONTRAKANTXA GAZTETXEA

Bulkada Eguna eta kontzertuak, gaur

Zita bikoitza daukate gaur, Kontrakantxa gaztetxean. Batetik, Bulkada Eguna ospatuko dute, goizetik: mahai ingurua 11:00etan, Hernaniko Gazte Antolakundeko militante ohien esperientziak ezagutzeko; poteo musikatua 13:00etan Garinen; eta herri bazkaria 14:30etan gaztetxean. Eta bestetik, kontzertuak izango dira gauean, 22:00etan hasita: *Egurra ta Kitto* eta *Hara!* taldeek joko dute. ||

■ XALAPARTA ELKARTEA

Mus txapelketarako, izenematea zabalik

Laster hasiko da, Xalaparta elkarteko Mus Txapelketa; 38garren edizioa izango du. Eta parte hartu nahi dutenek, dagoeneko zabalik daukate, izena emateko epea. Elkarteko iragarki taulan dago zerrenda. ||



Ttapa-Ttapa partehartzaileak, Akarregi sagardotegiaren aurrean. Argazkia: Hernaniko Udala

Udaberriko aurreneko bueltaxka, Akarregi sagardotegira bisitan

Ttapa-Ttapa egitasmoko 148 lagun elkartu ziren sagardotegian, joan den asteazkenean, oinez joanda batzuk, eta tren berdean besteak.

ASTERO bezala, joan den asteazkenean ere elkartu ziren, zitari hutsik egin gabe, Ttapa-Ttapa egitasmoko partehartzaileak. Baina zita berezia zuten aste honetakoa: udaberriari ongietorria emateko asmoz, sagardotegira egin zuten bisita, beste urte batez. Eta oraingoan, Akarregi sagardotegira

gerturatu ziren.

148 lagun elkartu ziren bertan, eguraldi ona aprobetxatuz. Oinez joan ziren gehienak, 80 lagun, asteroko bueltaxka sagardotegira eginez, oraingoan. Eta aldiz, mugikortasun arazoak dituztenek, eta Akarregi bailararainoko bidea luze egingo zitzaientek, tren berdean

egin zuten ibilbidea. 48 lagun joan ziren trenean.

Behin sagardotegian, moka du bat hartu zuten, eta lagunartean ondo pasatzeko aprobetxatu. Izan ere, ariketa fisikoa eta lagunartea uztartzea du helburu Ttapa-Ttapa egitasmoak; bereziki, adineko herri-tarren artean. ||

ALOKAGAI
MERKATARITZA LOKALA,
BULEGO ETA ERAKUSKETETARAKO APROPOSA

INFORMAZIO GEHIAGO
688 845 050 / etorlur@gipuzkoa.eus

etorlur

CD HERNANI FUTBOLA

Zubipe betetzeko prest hiru talde nagusiak, gaur

Jubenil Nazional Mailak eguerdian jokatu du; arratsaldean izango da Euskal Ligako emakumezkoen eta Erregionalen txanda.

AURREKO asteburuan talde nagusienek kanpoan jokatu ondoren, herrira buelta egingo dute oraingoan. Futbolaren kasuan, Zubipen lehiatuko dira hiru talde nagusiak: Jubenil Nazional Ligako eta Ohorezko Erregional mailako gizonezkoak eta Euskal Ligako emakumezkoak, hain zuzen.

Jubenil mutilak, gaur eguerdian Gaur izango da aukera Zubipen herriko futbol taldeekin gozatzeko. Gaurkoan, Jubenil Nazional Ligako taldeak jokatuko du aurrena, eguerdiko 12:30etan.

Eguerdian, irabazteko aukera aparta izango dute hernaniarrek, Sanseren, azkeneko sailkatuaren bisita jasoko baitute. Horrek ez du esan nahi, ordea, borrokatu behar ez dutenik; oraindik ere, hiru puntuak beharrezkoa dituzte, eta horien bila aterako dira berdeak.

Arratsaldean, emakume eta gizonezkoek Bazkalondoren izango da emakumezkoen txanda. Arratsaldeko 15:30etan hasita, Irungo Mariño taldea izango dute



Duela bi aste jokatu zuten azkeneko emakumezkoek, Zubipen.

aurkari neskek. Hauek ere, aukera izango dute garaipena eskuratzeko, Mariño ere azken postuan dago Euskal Ligako sailkapenean. 20 puntuko aldea dauka Hernanirekin (puntu bakarra daukate irundarrek),

baina bi postu beherago besterik ez dago. Ohorezko Erregionalek ere, gaur jokatuko dute Mondragonen kontra. Zubipen izango da hau ere, arratsaldeko 17:30etan. ||

KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

ERRUGBEA				ESKU PELOTA - Txapelketa ofizialak			
Ohorezko Maila	Independiente Hernani	Santanderen	Bihar 12:00	Jubenilak	Bizkaia/Mutua-Oihan Zugasti	Abadiñon	Gaur 15:30
Euskal Liga	Le Unia/Hernani ADS-Tengual	Lipian	Gaur 11:00	Jubenilak	Bizkaia/Pagola-Arriamendi	Abadiñon	Gaur 16:30
Senior B	Gernika/Hernani ADS	Urdetan	Gaur 11:00	ESKU PELOTA - Txapelketa pribatuak			
Infantilak (Sub14)	Hernani ADS-Ondoa	Landeren	Gaur 09:30	Nagusiak	Urdizu-Labaka/Murgondo-Etxepi	Irurtzunen	Gaur 10:30
FUTBOLA				Jubenilak	Oierizabel-Urreusti II/Rioja-Pendi	Hernanen	Bihar 11:00
Emak. Euskal Liga	Hernani-Mariño	Zubipen	Gaur 15:30	Kadetak	Kalder Apollasa/Oberena	Irurtian	Bihar 09:00
Mut. Ohorezko Erreg.	Hernani-Mondragon	Zubipen	Gaur 17:30	Kadetak	Unai Abeniz/Rodas	Irurtian	Bihar 10:00
Nak. Erreg. Preferentzia	Mutua Hernani	Mutua	Gaur 18:30	Kadetak	Ugaitz Labaka/Tokoa	Beran	Bihar 10:00
Mut. Erreg. Preferentzia	Hernani-Mundano	Zubipen	Bihar 08:30	Kadetak	Labaka-Ondoa/Sure Txeru	Aforgen	Gaur 13:30
Mut. Sub. Nazionala	Hernani-SADSE	Zubipen	Gaur 12:30	Kadetak	Gernandea-Apeltza/Tokoa	Aforgen	Bihar 10:00
Mut. Sub. Ohor. maila	Hernani-Mundano	Zubipen	Bihar 12:00	Kadetak	Pascual-Ondoren/Rodas	Aforgen	Bihar 12:00
Mut. Sub. 1go maila	Hernani-Lachao A	Zubipen	Bihar 16:30	Kadetak	Urtz-Alberia II/Lupke	Aforgen	Gaur 10:30
Nak. Kad. Ohor. maila	Aforgen-Hernani	Rendalen	Bihar 11:00	Kadetak	Urtz-Etxandi/Enrica	Zaramagen	Gaur 16:30
Mut. Kad. Ohor. maila	Ondoa-Hernani	Hendabetsen	Bihar 17:00	Kadetak	Jon Jara-Etxepi/Rodas	Lekuon	Gaur 18:30
Mut. Kad. 1go maila	Kodias B-Hernani	Mutua/Ondoren	Gaur 13:30	ERREMOHONTEA			
Nak. Inf. Ohor. maila	Hernani-Urtia	Zubipen	Bihar 09:00	1go partiduak	Etxandi-Apeltza II/Rodas-Arriamendi	Galesteren	Gaur 16:00
Mut. Inf. 1go maila	Hernani-Aforgen A	Zubipen	Bihar 10:30	Segurakaren Txap.	Goikoetxea V/Bermeola III/Etxepi II/Garcia	Galesteren	Gaur 16:00
Mut. Inf. 1go maila	Hernani-Lengua	Zubipen	Bihar 15:00	3. partiduak	Zabala II-Arriamendi II/Rodas	Galesteren	Gaur 16:00
SAILKIBOLA				4. partiduak	Agirre-Etxepi II/Segundo-Arriamendi	Galesteren	Gaur 16:00
Mut. Gipuz. 1go maila	Hernani-Ondoren/Sailkibola	Kirodegian	Gaur 16:45	ESKUBALDIA			
Mut. Gipuz. Juniorak	Mondragon Urdetabata-Hernani Txiki	Amatzen	Gaur 12:00	Mut. Jubenilak	Hernani-Tolosa	Kirodegian	Gaur 18:15
Mut. Gipuz. Juniorak	Hernani-Easo Abaita	Kirodegian	Gaur 11:30	Nak. Kadetak	Hernani-Arriamendi	Kirodegian	Bihar 12:00
BOLEIBOLA				Nak. Kadetak	Hernani-BH Conet	Kirodegian	Gaur 10:00
Nak. Jubenilak	Hernani-Arriamendi Ama	Kirodegian	Gaur 16:15	Nak. Infantilak	Arriamendi-Hernani	Oñatin	Bihar 10:00
Nak. Infantilak	Summa 1-Hernani	Summan	Gaur 10:30	Mut. Infantilak	Bizkaia B-Hernani	Irurtian	Gaur 13:15
WATERPOLOA				Mut. Infantilak	Hernani-Bergera	Kirodegian	Bihar 10:30
Seniorak	Hernani-Lachao	Kirodegian	Bihar 13:30				

ARRAUNA

San Pedro jaitsiera, bigarren erronka

Gaur izango du bigarren testa ‘Maialen’ traineruak arratsaldeko 16:30etan hasita.

UDAKO denboraldia hasteko oraindik hilabete batzuk geratzen diren arren, Maialen trainerua dagoeneko erronka txikiekin hasia da.

Martxoaren hasieran izan zuten aurrenekoa, Orion, eta gaur izango dute hasiera honetako bigarren erronka, Pasaian, San Pedroko Traineru Test Estropadarekin. Arratsaldeko 16:30etan hasita izango da estropada.

Hamabi traineru Emakumeen kategorian, hamabi traineru uretaratuko dira gaur, aurreneko txandan. Haiekin batera, bi minutu lehenago abiatuko dira Jubenilak eta beteranoak. Haiek 10 izango dira, eta ondoren, 12garren abiatuko da Hernani; emakumeetan, aldiz, hirugarren. 16:43tan izango da irteera, eta bi luze eta ziaboga bat egin beharko dute. ||

GIMNASIA ERRITMIKOA



Jubenil A2 taldeak bigarren postua lortu zuen Ibarren.

Maddi Goikoetxea aurrenekoa, Ibarren Gipuzkoako Txapelketara pasatzeko Amateur bigarren fasea jokatuta. Bigarren postua lortu zuen Patricia Perezek senior kategorian, eta Ainara Rueda eta Ana Lujambio ere ederki aritu ziren finalerako 2. eta 3. postuetan sailkatuz. Bestalde, Oihane Irazabalbeitiak ere finalera pasatzea lortu zuen. Taldeka, aldiz, bigarren postua lortu zuen Jubenil A2 taldeak; eta laugarrena, Jubenil A1 taldeak eta Jubenil B taldeak. Asteburu honetan, eskolarteko B mailako alebin eta infantilak arituko dira Gipuzkoako Txapelketarako txartela lortzeko lehian. ||

BOLEIBOLA

Kirodegian gaur, jubenilak

Norgehiagoka bana izango dute gaur boleiboleko bi taldeek, horietako bat, Hernanin. Jubenil mailako nesken partidua izango da, hain zuzen, kiroldegian jokatuko dutena, arratsaldeko 16:15etan hasita. Bestea, aldiz, Summa 1 taldearen kontra izango da, haien kiroldegian, Aldapetan, goizeko 10:15etan hasita. ||

■ APIRILEKO KULTUR AGENDA

Dantza, antzerkia eta musika, Korrikaren etorrera baino lehen

Aste Santuko oporrak eta Korrika nabarmenduko dira apirileko agendan, baina ohiko beste hainbat ekitaldi ere izango dira.

ZALANTZARIK gabe, Korrikaren etorrerak eta Aste Santuko oporrak izango dute protagonismoa apirileko kultur agendan, baina izango dira ekitaldi gehiago ere, aurretik eta ondoren.

Hain zuzen, apirilari hasiera Antzerki Zikloak emango dio: *Ghero*, *Espacio disponible* eta *Erlauntza* taularatuko dira Biterin, hurrenez hurren, apirilaren 2, 3 eta 4an. Aurreneko bietarako geratzen dira sarre-
rak; *Erlauntza* ikusteko, ez.

Horrez gain, datorren astean baita ere, Dobera Euskara Elkarteak sagardotegietan antolatutako *Bota Bertsoa!* bertso-
paper lehiaketako sariak banatuko dira, Iraulio Panttalone Bertso Kabiya-
lagunduta; ostira-
lean, 19:00etan Sandiusterrin. Era berean, haurrentzako *Kontu Kontari 2* antzerkia izango da larunbatean, eta egun berean, Musika Bandak kontzertua emango du, 18:30etan udaletxeko arkupeetan.

Hortik aurrera, datorren asteburuan protagonismoa hartuko duena Dantzari Festa izango da: larunbata, dantzari txikien eguna izango da, eta igandean, Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako dantzari-
ek alaituko dituzte kaleak. Asteburuari segika, jantzi era-



Kalez Kale Kantari bezalako ekitaldiak ere egingo dira apirilean.

kusketa eta hitzaldia izango dira hurrengo astean.

Carod Roviraren hitzaldia eta Maite Larbururen kontzertua
Apirileko bigarren astean beste bi ekitaldi berezi izango dira. Batetik, Korrika iritsiko da apirilaren 12tik 13rako gaueko 01:30ak aldera, eta horren harira, Korrika Txikia eta bestelako ekitaldiak egingo dira. Bestalde, apirilaren 11n, Hernani'n Musik zikloaren barruan Maite Larburu musikari hernaniarrak bakarkako aurreneko diskoa aurkeztuko du: *Hezurren azpian*. Sarrerak astelehenean jarriko dira salgai.

Bi aste horietan, bestelako ohiko ekintzak ere izango dira:

literatur solasaldiak, ipuin kontaketak, Kalez Kale Kantari eta erromeria... Eta tartean, kontzertua emango dute, baita ere, 'Hernani' Musika Eskola Publikoko teklatu ikasleek, hilaren 10ean, eta Kantuz abesbatzak, San Joan Bataiatzailea elizan, hilaren 13an.

Hurrengo egunetan, Aste Santuko opor egunetan murgilduko da agenda ere, eta hilaren 25ean egingo da hurrengo ekintza: Dobera Euskara Elkarteak antolatutako Zinea Euskaraz.

Eta hurrengo ekitaldi berezia, Hernani Errotzenek antolatutako hitzaldia izango da; Carod Rovira etorriko da, Katapultuaz aritzera, hilaren 26an. ■

■ AMHER ETXEKO LANGILEAK

Etxeko langileen aldeko festa, Erreterian

Jolasak, jatekoa eta musika izango dira doan, 17:00etatik aurrera. Amherrek parte hartuko du.

ETXEKO langileen nazioarteko eguna da gaurkoa, eta haien lan-baldintzak hobetzearen aldeko aldarria egiteko festa antolau du SOS Arrazakeriak arratsalderako, Erreterian Emakumeen Etxean. Hernaniko Amher elkarteak bertaratzeko dei egin du.

Etxeko langileen baldintzak hobetzearen alde

Bereziki, dauzkaten lan-baldintzak hobetzeko aldarrikapena egiten dute etxeko langileek. «Langileak gara, ez nekameak», adierazi dute.

Aldarrikapen eguna, dena den, festa giroan pasako dute, eta festan parte hartzeko dei egin du Hernaniko Amher elkarte multikulturalak.

Hitzordua arratsaldeko 17:00etan jarri da Erreterian Emakumeen Etxean, eta jolasak, musika eta jatekoa izango dira, doan, gerturatzen diren guztien eskura. Nork bere jatorrizko herrialdeko ohiko jakiak prestatu eta bertara eramatera ere animatu nahi izan dituzte herritarrak.

Datozen asteburuetan ere, ekintza gehiago egingo dira. ■

■ ANTZERKI ZIKLOA

'Ghero' antzezlanerako sarrerak, banatuta

Tartean teatroak bi sarrera jarri ditu Kronikaren esku, eta honek, Dobera Euskara Elkarteko bazkide eta Kronikariaren artean zozketatu ditu. Horrela, Pedro Erroizenean Miner izan da saritua, eta asteartean, Hernaniko Antzerki Zikloaren barruan, ikusi ahal izango du *Ghero* antzez-
lana, 20:00etan Biterin. 3000 urtean kokatzen da obra honetako istorioa: ospitalean hilzorian dago azken euskalduna. Bera hiltzean hilko da, baita ere, euskera. Mikel Martinez, Patxo Telleria, Olatz Ganboa, Iñaki Maruri, Ane Pikaza ariko dira aktore lanetan; Ana Garayrena da eszenografia, Iñaki Salvadorrena musika, eta Jokin Oregik zuzenduko du. ■

APIRILEKO AGENDA

2-4 Antzerki Zikloa, 20:00etan Biterin.

2, *Ghero*. Tartean teatroa. Euskeraz.

3, *Espacio disponible*. Perigallo teatro. Gaztelaniaz.

4, *Erlauntza*. Vaiven producciones. Euskeraz.

4, Irakurketa kluba (4.saioa), 3-5 urte arteko haurrentzat eta gurasoentzat, 17:30etan liburutegian, Maria Garcia Laderorekin. Tokirik ez dago.

5 Bota Bertsoa! V. Sari banaketa, 19:00etan Sandiusterrin, Dobera Euskara Elkarteak eta Iraulio Panttalone Bertso Kabiya antolatua.

6 Haur antzerkia: Kontu kontari 2. Biterin, 12:00etan, familia osoarentzat.

6 Hernaniko Musika Bandaren kontzertua, 18:30etan udaletxeko arkupeetan.

6-13 XXIV. Dantzari Festa, San Joan Konpartsak antolatua.

6, Dantzari Txikien irteera eta dantza emanaldia, 17:00etan erdigunetik kaleetan.

7, Euskal Herriko hainbat dantza talderen emanaldiak auzo eta kaleetan zehar, 10:45etatik aurrera. Talde guztien emanaldia 13:15, Plazan. Ondoren, bazkaria eta erromeria, Atsegindegian.

8-12, Euskal jantzien erakusketa Biterin, 17:00-20:00.

11, Hitzaldia, 19:00etan Biterin, Ramon Garciarekin: *Baserritarren eta kalekumeen janzkerak* (XIX. eta XX. mendeetakoak).

9, Literatur solasaldia: *Elur Bustia*. Pello Lizarralde. Ane Mayozen dinamizatuta, euskeraz. 19:30etan, Liburutegian.

10, Literatur solasaldia: *Tierra de campos*. David Trueba. Amaia Garciak dinamizatuta, gaztelaniaz. 19:30etan, Liburutegian.

10, Ipuin kontaketa, Lupe Lekuona-
rekin, Biterin, 17:30etan 3-4 urteko-
entzat eta 18:00etan 5-7 urteko-
entzat. Gonbidapenak eskatu behar
dira eta gurasoei joan behar da.

10, Kontzertua: 'Hernani' Musika Eskola Publikoko teklatu ikasleak, Biterin, 18:30etan.

11, Hernanin'n Musik: Maite Larburu: *Hezurren azpian*, Biterin, 20:00etan. Sarrerak salgai apirilaren 1etik.

12-13, KORRIKA.

12, Korrika Txikia, 11:00etan.

13, Korrika ofizialari ongi-etorria, 01:00ak aldera.

13 Kontzertua: Eliz musika, Kantuz abesbatzarekin, 20:00etan San Joan Bataiatzailea elizan.

13 Bigarren Eskuko Azoka, 10:30-13:30 Atsegindegian.

13 Kalez kale kantari, 12:00etan Plaza Berritik abiatuta.

13 Erromeria, San Joan Konpartsak antolatuta, 18:30etan Plaza Berrin.

25, Zinea Euskaraz. Dobera Euskara Elkarteak. Sandiusterrin, 18:30etan.

26, Hitzaldia: *Catalunya, geltokiburu: askatasuna*. Hizlaria: Carod Rovira. Antolatzailea: Hernani Errotzen taldea. Biterin, 19:00etan.

30, Ipuin kontaketa, Maite Frankorekin. Biterin, 17:30etan 3-4 urtekoentzat eta 18:00etan 5-7 urtekoentzat. Gonbidapenak eskatu behar dira eta gurasoei joan behar da.

Irabazi 500€ Opari txartela

500€KO 2 OPARI-TXARTEL ZOKKETATZEN DITUGU PARTE HARTZEN DUTEN DENDETAN HERNANI TXARTELAREKIN ORDAINITZEN DUTENEN ARTEAN.

Sustapen honek apirilaren zehar balio du
* Baldintzak www.hernanidendak.eus-an kontsultatu

BERRIAK Hernani

www.hernanidendak.eus
676.134.803

honorario
hernani

hernaniko
idola

protege

HERNANI

■ OSIÑAGA AUZOA TXURIA ENEAKO ZUBIA

Hernaniko azkeneko zubi ‘kolgantea’, erabiltzaileek auzolanean eraikia

1954 eta 1955 urteen artean eraiki zuten Txurieneko zubia, ordezkatzeko 50 metro beherago zegoena, 1953ko uholdeek kaltetu zutenean. Geratzen den zubi ‘kolgante’ bakarraren inguruan, ikerlana osatu du Josu Arrieta Iraolak: «aurreko zubiaren erabiltzaileek, etxe bakoitzeko batek, egin zuten lan, zubi berria eraikitzeko».

2011 urteko uholde haietan *laguna* galdu zuenetik, zubi eseki edo *kolgante* bakarra da Txurienekoa, Osiñaga auzoan. Eta hala izaten segiko du, urak eraman zuen Elorrabiko zubiaren tokian, zubi finkoa eraiki baitute, ekainaren 1ean ofizialki inauguratuko dutena, Osiñaga auzoko festetan.

Txurienekoa, berriz, erabili ezinik dago orain, urtarrilaren 30ean kotxe batek bere euskarrietako bat jo, eta zubia kolokan utzi zuenetik. Horregatik, «noiz konponduko duten esperoan» daude auzotarrak eta erabiltzaileak, haundia baita daukan garrantzia, eta 1955 urtean martxan jarri zutenetik izan duena. Zubiaren inguruan, ikerlana osatu du Josu Arrieta Iraola Osiñagako auzotarrak.

1953ko uholdeek kaltetu zuten zubiaren ordezkoa, Txurienekoa

1954 eta 1955 urteetan eraiki zen Txurieneko zubia, aurretik zegoen beste baten ordezkia. Urumea ibaiaren ibilbidean, 50 metro beherago zegoen, eta Loidiko bidea eta Biyak Bat paper fabrika lotzen zituen. Baina 1953ko urriaren 14an gertatutako «izugarritzko uholdeek», kalte handiak eragin zituzten Urumea bailaran, Arrietak azaldu duenez. Eta horietako bat izan zen, oso hondatuta geratu zela zubi hori, ezkerreko ertza «guztiz txikituta» zuela.

Egoera horretan, gutun bat idatzi zion Biyak Bat enpresako gerenteak, Udalarari: «gutunean adierazi zion, ezin zuela bere gain hartu zubiaren berreraiketa; eta erregutu zion, Udalak bere bitartekoekin edo bestelakoekin konpondu zezala arazoa, oso garrantzitsua zelako bizilagunentzat eta auzoko enpresetan lan egiten zutenentzat. Era berean, azaldu zion Hezkuntza Delegazioari komunikatu ziola, nolako arazoa sortzen zion egoera horrek, fabrikaren ondoko etxeetatik Arriatsuko eskolara joan behar zuten ikasleei», dio Arrietak.

Eskaera horren aurrean,



Txuria Eneako zubi kolgantea, ondoan dagoen labaderotik ikusita. Garai berean eraiki zituzten biak, 1954 eta 1955 urteetan.

«Uholdeek zubi zaharra kaltetu zutenetik Txurienekoa eraiki arte, moldatu behar izan zuten Karabeletik eta Elorrabitik pasatuz; eta udaran, ibaia zeharkatuz»

zubia egunero erabiltzen zutenen zerrenda osatu zuen Udaleko guardak, Javier Barrenetxeak, 1954ko abuztuaren 16an (ondoko orrialdean dago ikusgai, Barrenetxeak berak osatu zuen dokumentua). «Zerrendak erakusten du, Biyak Bateko gerenteak ez zuela arrazoirik falta», adierazi du Arrietak: «uholdeek txikitu zuten zubia, oso garrantzitsua eta beharrezkoa zen, eta ez bakarrik Osiñaga auzoko langileentzat eta baserritarrentzat; baita Portutik, Hernaniko kaleetatik, Urnietako baserrietatik eta Donostiatik, Biyak Bat eta Zikuñaga paper fabriketara lanera joaten ziren guztientzat ere;

eta nola ez, ezinbestekoa zen, Eziago edo Zikuñagatik Arriatsuko eskolara joan behar zuten haurrentzako. Gainera, zerrendan ez dira sartzen, igandetan mezetara Zikuñagako ermitara joaten zirenak».

Arrietak nabarmendu du, zerrendako gehienak baserrietako seme-alabak zirela, «denak gazteak, kasu gehienetan baserrietan jaiotako aurreneko proletarioak. Zerrendari errepertuz gero, askok aurkituko ditugu senideak bertan».

Zubi zaharra konpontzea, hasierako asmoa

Hori ikusita, Udalak zubi zaharra konpontzea erabaki zuen,

hasiera batean. Baina azkenean, zubi berri bat eraikitzearen alde egin zuen, beste kokaleku batean. Horrela, Txuriene edo Oianeder baserriaren parean egitea erabaki zuen, gaur egun dagoen tokian. Baina auzolanean egingo zuten zubia: Udalak ordainduko zuen materiala, 14.000 pezeta inguru, eta eskulana, zubi zaharraren erabiltzaileek jarriko zuten: «horrela, erabiltzaileek, etxe bakoitzeko batek, lan egin zuten, zubi berria eraikitzeko».

Arrietak azaldu du, Hernaniko Udal Artxiboan ez dagoela dokumenturik, zubia eraikitzeko lan antolaketaren inguruan: «dokumentu bat badago, hala ere, Javier Barrenetxeak berak sinatua, non azaltzen den lagun batek uko egin ziola lan egiteari, eta lanaren ordezkia, Udalak erredentzioa jarri ziola dirutan, 25 pezeta».

1955ean bukatu zuten zubia, eta bitarte horretan, ia urte eta

erdian, moldatu behar izan zuten Karabeletik eta Elorrabitik pasatuz; «eta udaran, ibaia zeharkatuz», azaldu du Arrietak: «oinez joaten ziren lanera, eta hiru errelebotan gainera, neguan zein udaran. Pentsatu dezakegu, zubirik gabeko tartea luzea eta gogorra izango zela batzuentzat; adibidez, Urnietako Legarralde, Ezkerraenea eta Barkaiztegi baserrietatik, fabriketara lanera joan behar zutenentzat. Izan ere, bestela ere ordubete inguru behar zuten, fabrikara iristeko».

2002ko konponketa sakona, eta kokan jarri duten bi istripu, azkeneko urteotan

Garai hartan eraiki zuten zubia da, gaur egun dagoena: «baina 2002 urtean, Mertxe Etxeberria alkate zela, Udalak konponketa sakona eta beharrezkoa egin zuen, Elorrabiko eta Txurieneko zubietan. Gaur egun ere, Txurieneko zubiak erabiltzaile asko



Javier Barrenetxea (eskuinean), Hernaniko landa guarda izan zen 50eko eta 60ko hamarkadetan. Bera izan zen, Txurieneko zubiaren lanen arduradun.

ditu, lanera joateko, paseatzeko... Eta urtero jasotzen du mantentze lanen bat, udal lan-gileen eskutik», dio Arrietak.

Baina era berean, gogora ekarri ditu, Txurieneko zubiak azkeneko urteotan izan dituen kalte larriak: «azkeneko hiru urteotan, zubia bi aldiz egon da desagertzeko zorian. 1983ko eta 2011ko uholde erraldoiei eutsi die Txurieneko zubiak, baina bestelako arrazoiengatik egon da, guztiz hondatzeko zorian. 2016ko uztaillean, furgoneta batek jo zuen zubiaren euskarria, eta kableak hautsi zizkion, zubi erabili ezinik utzita. Horren ondoren, zubia konpondu zuen Udalak, eta aurten, urtarillaren 30ean, beste kotxe batek jo zuen euskarria, zubia kolokan utziz berriro ere».

‘Ahaldia’, makina bat lanetarako tresna

Auzolanean egin zen zubia, baina garai haietan, *ahaldia* izenez ezagutzen zen auzolana Urumea inguruetan, Arrietak azaldu duenez: «ohiko zen lan publikoak, auzoko bideak garbitu eta berritzea adibidez, ahaldi lanez egitea. Baina elkarri laguntzeko ere, baserrietako lanetan laguntza behar zenean, auzotarrei ahaldirako deitzen zitzairen. Auzoko arduradunak, gehienak pertsona bera izaten zenak, halako egunetarako ahaldi lanerako deitzen zituen auzotarrak, eta etxe bakoitzeko bat edo bi joaten ziren lanera», kontatu du.

Txurieneko zubiaren lanen kasuan, dio berak, «ondorioztatu daiteke Javier Barrenetxea guarda izan zela arduraduna; berak koordinatu zuen lan egin behar zutenen egutegia».

Arrietak azaldu du, orain ez direla egiten, lehen bezala, bide garbiketa eta bestelako lanak auzolanean: «baina auzolanak badu bere tokia gure gizartean. Ikastolak, kooperatibak

eta zenbait egunkari, adibidez, horrela sortu ziren. Hernanin bertan, zenbait kirol taldek, auzo elkartek edota kultur elkartek, behar beharrezkoa izaten dute auzolana, bizirauteko».

Txurieneko labaderoa, zubiaren garai berekoa

Txurieneko zubia eraiki zen garai berean, 1954 urtean, egin zuten Txurieneko labaderoa ere. Zubiaren ondoan dago kokatuta, Oianeder baserriaren aldean, zubiaren eskuineko aldetik jaitsita. Bide bat dago, nahiko erraz jaisteko aukera ematen duena: «nahiz eta bere egoera ez den onena, errespetua ematen du», dio Arrietak.

Etxe Alai eta Ibai Ondo etxeak eraiki zirenean egin zuten labaderoa, Galtzadaberrieta guneko bizilagunei zerbitzua emateko: «bertan garbitzen zituzten arropak, fabriketan lan egiten zuten langileen eta baserriarren emazteek», dio Arrietak. Eta nabarmendu du, arrisku haundiko lana izaten zela hori, zenbaitetan: «Urumea ez da erreka, ibaia da; eta neguan adibidez, ibaia ur askorekin joaten zenean, auzoko emakumeek arriskuan jartzen zuten bere bizitza, familiako arropa garbitzeko».

Ondoko argazkia, 1969 urte ingurukoa da, eta bertan ikusi daitezke, Etxe Alai etxean bizi zen familiako lau kide, arropa garbitzen: Alberta ama, bi alaba eta semea.

«Zubia eta labaderoa babestuta daude, eta errespetua merezi dute»

Arrietak gogorarazi nahi izan du, Hernaniko Udalaren arau subsidiarioek babesten dituztela, bai Txurieneko zubia, eta baita labaderoa ere: «Hernaniko historia hurbilaren elementuak dira biak, eta garrantzi haundikoak. Beraz, errespetua eta babesa merezi dute». ■

USUARIOS DIARIOS DEL PUENTE COLGANTE									
Entidad Oñizaga					Los del Casco del pueblo				
1	B	Pablo Arregui	obrero	d	1	Z	Juan Istueta	obrero	d
2	Z	Juan Iradi	id.	d	2	Z	Juan Balardi	id.	d
3	T	José Jáuregui			3	B	Juan Olaondo	id.	d
4	T	José M ^o Murua			4	B	Hipólito Arregui	id.	d
5	T	Miguel Lajambio			5	B	Miguel Aramburu	id.	d
6	Z	Santos Prieto	obrero	d	6	B	José Aldasoro	id.	d
7	B	Manstino Alberdi	id.	d	7	B	Eusebia Otegui	id.	d
8	Z	Miguel Maizcorbe	id.	d	8	B	María Lizarribar	id.	d
9	B	Francoisco Zabalo	id.	d	9	B	Jesusa Arrieta	id.	d
10	T	José J. Errazquin	id.	d	10	B	Agueda Beracierto	id.	d
11	T	Agustín Arregui			11	B	Vda. de Zubia	id.	d
12	T	José Inchausti			12	B	Dionisio Usarraga	id.	d
13	T	José R. Herrondo							
14	B	Simón Zapirain	obrero	d	Urdieta				
15	Z	Ignacio Errazquin	id.	d	1	Z	Modesto Iceta	obrero	d
16	T	José M ^o Garín			2	Z	Pedro Arrieta	id.	d
17	T	Joaquín Garín			3	Z	Nicolás Lasarte	id.	d
18	T	Bautista Errazquin			4	Z	Javier Urdangarín	id.	d
19	T	José M. Echeverría			5	B	Cayetano Michelena	id.	d
20	ByZ	Manuela Zapirain	obreros	d	6	Z	Ramón Iraola	id.	d
21	Z	Jerónimo Garmendía	obrero	d	7	B	Miguel Beracechea	id.	d
22	B	Juan M. Miner	id.	d	8	Z	Manuel Arrieta	id.	d
23	B	Francoisco Aramburu	id.	d	9	Z	Luis Lerchundi	id.	d
24		José Iradi	voluntario		10	Z	Anastasio Elícegui	id.	d
25	Z	Vda. de Aguinaga	obrero	d					
26	Z	Vda. de Elorza	id.	d	San Sebastián				
27		Santos Ceberio	voluntario		1	B	Rnos. Gómez	obreros	d
					2	B	Enrique Lasarte	obrero	d
Entidad Zikuñaga									
1	B	Ignacio Arregui			Hernani, 16 de agosto de 1.954 El Guarda,				
2	B	Antonio Goicoechea							
3	B	Ignacio Artola							
4	B	Leocadio Goicoechea							
5	B	Lucas Peñagaricano							
6	B	Pedro Marticoarena							
7		Francoisco Echeverría							
8	B	Miguel Arana							
9		José Erdacio	escuela						
10	B	José Larrañaga	id.						
11	Z	Antonio Larrañaga							
Barrio del Puerto									
1	Z	José M ^o Zamora	obrero	d					
2	B	José Anabitarte	id.	d					
3	B	Josefa Arispe	id.	d					
4	Z	José Lizarralde	id.	d					
5	B	Antonio Mendizábal	id.	d					
6	B	Fortuna Arayago	id.	d					
7	Z	Alejandro Arteche	id.	d					
8	B	Anastasio Otegui	id.	d					
9	B	Pedro Lajambio	id.	d					
10	B	Francoisco Elorza	id.	d					
11	B	Justo Iraola	id.	d					
12	B	Dolores Urulain	id.	d					
13	Z	José J. Zubeldia	id.	d					
14	B	Cornelio Roteta	id.	d					
15	B	Antonio Inchausti	id.	d					

Javier Barrenetxea, Udaleko guardak, zerrenda osatu zuen 1954an, aurreko zubia egunero erabiltzen zutenak jasota. Laburduren esanahia: B - Biyak Bat paper fabrikan lan egiten zutenak; Z - Zikuñagako paper fabrikan lan egiten zutenak; T - Baserrian lana egiten zutenak; Vda. - Etxebizitza; d - zubia egunero erabiltzen zutenak.



Etxe Alain bizi zen familia, Txurieneko labaderoan arropa garbitzen. 1969 urte ingurukoa da argazkia.

Etxea erosteko gomendioetatik azkeneko oihalera arte, bidelagun

Bidelagunak denetarako daude: aisialdirako, kirola egiteko, lanerako... baita etxeei itxura onena emateko garaian ere. Horien artean daude Iñaki Alkorta barne-diseinua eta Dekolanak Hernaniko dendak: «bezeroen beharretara egokitzen gara», ziurtatzen dute biek.

Gero eta erritmo azkarragoetan bizi dira herritarrek gaur egun: lana, kontziliazioa, kirola... horrek aldapatsua egin dezake etxe baten itxuraldaketa. Eta horretarako bidelagun perfektua bilatzea izango da gakoa. Horien artean daude, hain zuzen, Hernaniko Iñaki Alkorta barne-diseinatzailea eta Dekolanakeko taldea.

Etxe zaharrak erreformatzea, behar haundiena

«Bezeroen beharretara egokitzen gara» onartzen du Dekolanak eta berresten du Iñaki Alkortak. Dena den, herritarren artean identifikatuta daukate zein den behar haundiena: «erreforma integrala egitea, hau da, etxea guztiz berritzea», onartzen du Iñaki Alkortak.

Eta ildo beretik hitz egiten du Dekolanak: «bezeroak etxea erosi baino lehen izaten du aurreneko harremana gurekin; orduan hasten da gure inter-

bentzioa. Hala, kalkulatu dezakete zenbat balio duen etxeak eta zenbateko kostua izango duen erreformatzek».

Behin etxea erosita, helburua izango da «bizi behar duen familiaren ezaugarrietara egokitzea etxea, haien beharretara eta bizimodura», Iñaki Alkorta barne-diseinuaren esanetan.

Bide horretan, hasierako planifikazioa ezinbestekoa dela diote. «Obra baino lehen dena landu beharra» nabarmentzen dute Dekolanaketik.

Iñaki Alkortatik egituraren garrantzia azpimarratzen dute: «denbora gehiena joaten da distribuzio on bat egiten».

Bukaerarako uzten dituzte biek, apainketa eta osagarriak.

Etxea berria denean ere, badaude esku-hartze aukerak

Etxe berri bat erosteak ez du esan nahi egitekorik ez dagoenik, eta hori ederki ondo dakite Iñaki Alkorta eta Dekolanakeko langileek. Azkenaldian joera oso

zehatza izaten ari direla diote aurrenekoek: «erosterakoan kontrukturak aukera ematen dizu gauza batzuk aldatzeko. Horren aurrean, guregana jotzen dute zer hobetu daitekeen galdetzeko. Gure aldetik landu, eta konstruktorekin egiten dugu kontaktua. Horrela koetan, normalean, gauzak ez dira tokiz aldatzen».

Hori ez hainbeste, eta beste bi kontu aipatzen dituzte Dekolanakeko langileek: «bi kasu daude. Aurretik, eraikitzaile-



Argazkia: Iñaki Alkorta




Iñaki Alkorta

barne diseinua

-  Dekorazio proiektuak
-  Gremio koordinaketa
-  Altzariak
-  Osagarriak

Andre Kalea, 39 · 20120 Hernani · 943 335 431 · www.inakialkorta.com



Argazkia: Dekolanak

Ohikoena da «erreforma integrala egitea, hau da, etxea guztiz berritzea»

Alokatzeko etxeak direnean, «eskaera da ahalik eta aurrekontu txikienarekin, ahalik eta aldaketa haundiena lortzea»

leekin, aldaketak egin ez dituztenek, erreforma partzialak eskatu ditzakete (elektrizitate kontuak, manparak jartzea, etab.), baita altzariz hornitzea ere. Hau da, kasu hauetan, 'etxea jantzi' egiten da. Aurretik aldaketak egin dituztenek, aldiz, apainketa lanak besterik ez dituzte eskatzen».

Alokairurako ere, lan txikiak
Etxea alokairuan jartzen denetan profesional hauengana gerturatzeko denik ere badago, nahiz eta hain ohikoa ez izan. Kasu hauetan, «inbertsio gutxiago eta praktikotasun gehiago» eskatzen dutela onartzen dute Iñaki Alkorta kideek. Izan ere, «normalean argi izaten dute beraiek ez daukatela han bizitzeko asmorik, eta beraz, apainketari ez diote garrantzia haundirik ematen».

Haien ustez, helburua izaten da «oinarrizko obra egitea, eta gauzak jartzea gehiago



Argazkia: Dekolanak

iraun dezaten». Beraien beldurra baita «alokatzen duenak nola mantenduko duen».

Ildo beretik hitz egiten du Dekolanak: «eskaera da ahalik eta aurrekontu txikienarekin, ahalik eta aldaketa haundiena lortzea». Eta gehitzen du: «eta aldaketa hori estetiko izatea bereziki, hau da, polita izatea».

Kasu horietan, Dekolanak taldeak aurretiko lan bat ere egiten duela diote: «aurrena, etxea garbitu egin behar da, gauzak hautatu eta besteak kendu. Prozesua izaten da: hustu, kendu eta aurpegia garbitu». Horretarako, herriko beste profesionalen laguntza ere izaten dute.

Dekolanak azaltzen du, baita ere, prozesu bera erabiltzen duela etxe bat salmentan jartzerakoan ere.

«Oinarrizko koloreak, neutroagoak»

Nahiz eta norberak bere gustuko etxea eraiki behar duen, tendentziekin bat egiten dute herriko diseinatzaile eta erreformistek ere. «Egun oinarrizko koloreak eta neutroak» dira azkeneko urteetan zabaldu direnak, diseinuan sakontzeko jokoa ematen baitute: «testurekin, ondoren, kolorea eman dezakegu», diote Iñaki Alkorta barne-diseinuko kideek.

Zentzu horretan, «diseinuari eta distribuzioari» garrantzia haundiagoa ematen zaio egun, Dekolanak iritziz. Eta bigarren kontu horri heltzen diote Iñaki Alkortatik: «lehen etxeak haundiagoak ziren; egun, espazioak gehiago aprobetxatu behar dira, helburua baita metroak ez galtzea». Horretan laguntzeko prest daude. ■

ERREFORMAK
Telf: 680 442 219

Nagusia, 52. Hernani
kontaktua@dutxaberri.com

Montajes **ROYMA** Distributorea ofiziala **FINSTRAL**

ATEAK, LEIHOAK ETA PERTSIANAK

1990ETIK HERNANIN

943 100 577 Elkano kalea, 10. Hernani
www.montajesroyma.com

www.dekolanak.eus

Materialen salmenta - Gremioen lan taldea - Berrikuntzak

Kale Nagusia, 41 • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
Tel. 943 336 083 • 653 739 340
info@dekolanak.eus

PINTURAK

Etxe barrurako
Kanporako
Egurra babesteko
Nahi duzun kolorea

ZURE PINTURA DENDA

PAPER PINTATUAK

LAMINATUAK

Obrarik gabe
Akarregi poligonoa
3.pabilloia 3-A Hernani

FATXADAK

943 52 16 50
basmodec.com

Erosotasunaren bila, komunean ere



Adituen ustez, espazioa, uraren kontsumoa, bizi-erritmoa eta adina hartu behar dira kontuan ondo aukeratzeko.

Etxea egiten ari direnean, nahiz berrikuntza bat eskatzen denean, oso ohikoa da gaur egun garai batean bainera zena, dutxa bihurtzea. Dena den, beste batzuk nahiago dute betiko bainera tradizionala. Zuk, zeren alde egingo zenuke? Oraindik ez dakizu? Adituek aipatzen dituzten alde onak eta txarrak aurkeztuko dira, jarraian.

Espazioa eta ura aurrezte, asmoetako bat
Espazio arazoak izaten dira baten edo bestearen alde egiteko arrazoietakoa bat. Komun haundietan, ez dago arazorik bainera sartzarako garaian; komun txikietan, aldiz, lekua aurrezteko balio dezake, eta kasu horietan, askok egiten dute dutxaren alde. Sentsazio hori areagotu egiten da, gainera, kristalezko manpara jartzen denean; askoz ere argitsuagoa izango da komuna, eta beraz, haundiagoaren itxura hartuko du.

Ura aurrezteko ere, baliogarria da dutxaren aldeko apustua egitea. Dutxatzea azkarragoa da, normalean, eta beraz, ur-kontsumoa ere txikiagoa izango da. Dena den, bakoitzaren arabera izango da kontsumo hori, baita bainera motarena ere.

Bizitza mota ere, tartean
Horrez gain, bizitza erritmoak ere badauka zerikusia. Bainu luze eta lasaigarria hartzea

Bainu luze eta lasaigarria gustatzen zaienentzat, bainera jartzea litzateke egokiena.

gustatzen zaienei, nahiago izango dute bainera jartzea haien etxebizitzan. Aldiz, lanera joan aurretik dutxa azkar batekin konformatzen direnek, seguraski, nahiago izango dute dutxa edukitzea.

Adinaren arabera, praktikotasunaren bila
Praktikotasuna ere adinaren arabera ikusi beharko du bien artean erabaki behar duenak. Txikien kasuan, nahiago izaten dute bainu dibertigarri bat, dutxa azkar bat baino. Gainera, lasaitzeko momentua ere izango dute.

Adinekoen kasuan, aldiz, irisgarritasunaren aldetik, aztertu beharko litzake erabakia. Lurraren mailako dutxak, itxitura osoa ez daukaten manparak edota heldu-lekuak jartzeko erraztasuna eskainiko die helduei dutxek.

Dutxa edo bainera, norberaren erabakia da, eta bakoitzaren bizimoduaren, adinaren eta beharren arabera erabaki beharko da adituek azaltzen dutenez.

ITUROLATARROK

Lana txikitu

“Lana munduan existitzen den miseria ia ororen iturburua da. Sufritzeari uzteko lan egiteari utzi behar genioke”

BOB BLACK Lanaren Abolizioa

Maiz galdetzen digute ea lanean zer moduz gabiltzan; etxean anai-arreba eta gurasoek, kalean lagun eta ezagunek, psikologoak, tabernariak edota herriko poliziak. Lotsarik gabe, ia egunero. Guk egi erdia erantzun ohi diegu. Batzuek zoriondu ere egiten gaituzte, maite dugun horretan jarduten garelako. Gehienetan autonomoak gara; batzuentzat artistak, besteentzat freakie hutsak. Zortedunak gus-tatzen zaigun honetaz bizi garelako. Baino hala al da?

Gustuko lana entelekia bat da. Amodio erromantikoa edo erlijioaren erara, ipuin bat, sistema ekonomiko-ari eusteko sortu zena eta gure gain jasangaitzak diren zamak kargatzera behartzen gaituena. Ez dago duinta-

sunik beharrean. Aste-bukaeretan lan egiten dugu, gauzez eta euripean askotan. Oporrak, ahal bada hartu eta kobratzen ditugu. Hau da gure egia. Nola egin orduan aurre errealitate gordin honi?

Erantzuna eskola atarietan eta parkeetan dago. Lana jolas bihurtu behar dugu: betebeharrak sistemati-zatu ordeztu, zilipurdika bide berriak bilatu eta arauak hautsi. Hots, txikiengandik jostatzen berrikasi. Hau da lana txikitzeko modu bakarra.

Eñaut Tolosa García
biraprodukzioak.eus
Diseinu eta ikus-entzunezkoen bueltan

Hernaniko Elkarlan Sorgunea
Iturola.eus
Florida Auzoa, 28
20120 Hernani

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

TALLERES MITXELENEN BABESTUTAKO ATALA
Eziago Poligonoa, 21 - Zikuñaga Auzoa, Hernani
www.talleresmitxelena.eus


MENDAU
INMOBILIARIA
Andre kalea 44, behe. Hernani
943 33 04 83 / 943 33 04 43
www.inmomendaur.com

URALDE K21
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
AIRE EGOKITUA
SUTEAREN AURKAKO INSTALAKUNTZAK
ZORU BERO EMALAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
MANTENUA
Mañe y Flaquer, 5 behe 1 HERNANI - Tel / Faxa 943 55 33 55 - uralde@uraldeiturgintza.com

KULTUR AGENDA

Hitza jolas izango da apirilean, Korrika eta liburu eguna tarteko

Azstigazte lehiaketa ere berriro jarri da martxan, hilaren 24ra arte. Musika eta antzerki ikuskizunak ere ez dira faltako.

ASTE Santuko oporrak tartean badira ere, makina bat ekitaldi izango dira apirilean ere. Korrika hilaren 12tik 13ra arteko gauean pasako da, eta horren harira hainbat ekitaldi antolatuta dira. Bestalde, apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da, eta apirilaren 2a Haur eta Gazteen Liburuen Eguna; horien harira ere, ekitaldi bereziak antolatu dira: Sorgina Txirulina kontalariaren saioa, esaterako, asteartean, edota Joseba Barandiaran plazan jarriko den liburu azoka solidarioa, 23tik 25era.

Azstigazte lehiaketan parte hartzea, hilaren 24ra arte

Bestelako hainbat ekitaldi ere antolatu dira. Horieta bat, 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako Azstigazte lehiaketa.

Apirilaren 24ra arteko epea dago aurkezteko. Oraingoan, 'sendia' da gaia, lanak egiteko. Informazioa Udaleko gazteria sailean eskatu behar da.



Liburuaren Egunaren harira hainbat literatur ekitaldi egingo dira apirilean.

Liburutegia, goizetan ere bai

Aste Santua medio, ekintza bereziak ere egingo dira Sagardoetxean, eta haur eta gazteei zuzendutako Jolas Txiki eta tailerrak ere bai, kultur etxean.

Bestalde, ohi bezala Zilegi Eskolak antolatu ditu AEK euskaltegiak, gurasoei zuzendutako hitzaldia eskolako guraso el-

karteak... Zinea eta musika edota antzerki ikuskizunak ere izango dira kultur etxean edota musika eskolako ikasleen eskutik, eta Mundarrok familian egiteko irteera ere antolatu du.

Berrikuntzen artean nabarmentzekorik ere bada hil honetan: liburutegia ireki egingo da goizetan ere. II

KORRIKA

Musika, tailer eta festa gaur, Korrika Kulturalean

Egun osoko festa egingo da. Bestalde, kantu-afarirako txartelak salgai daude.

GERTU dago Korrika: apirilaren 12tik 13ra bitarteko gauean iritsiko da Korrika Astigarragako kaleetara, eta motorrak berozeko, Korrika Kulturaleko festa egingo da gaur egun osoan, Joseba Barandiaran plazan.

Bestalde, Korrika pasako den gauean kantu-afaria egingo da, eta txartelak salgai daude, apirilaren 5era arte.

Festa gaur, Joseba Barandiaran plana

Eguna gaur 11:00etan hasiko da, Joseba Barandiaran plazan. Batetik, Korrikako arroparekin postua jarriko da, eta bestetik, Xaguxar Aisialdi Taldeak Korrikarako murala egingo du, parte hartu nahi duten umeekin.

Gero, 12:00etatik 12:45etara *Klika!* abestiaren dantza tailerra egin ahal izango da Mundarrokerekin, eta 13:00ean plaza dantzak egingo dira Astigarrekin.

Arratsaldean, 17:00etan jarraituko du festak: Korrikako arropa postua jarriko da berriro. Segidan, 18:00etan, Aizton-

do abesbatzak girotuko du plaza, eta 19:00etan, Astigarragako Gazte Asanbladarekin egingo den poteo alaiak borobilduko du eguna.

Apirileko 12ko kantu-afarirako txartelak, apirilaren 5era arte

Bestalde, Korrika iritsiko den gauean itxaronaldia goxatzeko, kantu-afaria egingo da Joseba Barandiaran plazan apirilaren 12an. Hain zuzen, 01:02 aldean iritsiko dela aurreikusten da, Oiartzundik barrena, eta Hernanira jarraituko du, 01:24etarako.

Hori horrela, Joseba Barandiaran plazan egingo da afaria, eta Xabi Urdangarin eta Ibon Otaegi ariko dira gaua girotzen. Afaritarako bi aukera izango dira: menu arrunta edota menuak 26 euro balio ditu, eta umeentzakoak, 15 euro.

Izena apirilaren 5era arte eman ahal izango da, Zipotzan, Ikatzan edota AEK euskaltegian. II

APIRILEKO AGENDA

1, Apirilaren 1etik aurrera liburutegia goizero irekita, 10:00-13:00.

1-10, KZ Gune ko koordinatzailea bertan egongo da 16:00-20:00.

1-9, Smartphone eta tabletei buruzko ikastaroa KZ Gunean, 18:00-20:00. Izen-ematea: 943 023 617 edo tutor.astigarraga@kzgunea.net.

2, Sorgina Txirulina kontalariaren ipuin kontaketa, haur eta gazteen liburuaren nazioarteko egunaren harira, 17:30etan kultur etxean, 3-9 urte bitarteko haurrentzat eta gurasoentzat. *Emakume paregabeak eta berdintasuna* emanaldia.

4, Zilegi Eskola: Sendabelarrak. AEKren lokalean, 09:30etan, hiru euroan, Maika Cesterren eskutik. Izena emateko: kultur etxean edo zilegieskolak@aek.eus.

6, Musika eta antzerki ikuskizuna: Anton Abbadi: *Dublinetik Hendaia-ra*. Kultur etxean, 20:00etan. Txomin Hegui antzezleak, Xabi Zeberio eta Mixel Ducau musikariak eta Alaia Philips Ducau abeslariak hartuko dute parte. Sarrerak: helduek 6 euro, eta adin txikikoek, 3.

6, *Hilos de sororidad*, Harituzen Matazak proiektuaren inguruko dokumentalaren estreinaldia, 19:00etan Victoria Eugenia (4,5 euro). Hilaren 10ean Principalen, 19:30etan, doan.

7, Plaza dantzak, 12:30etan Joseba Barandiaran plazan.

9, Musika. Norberto Almandoz Musika Eskolako *Rock For Ever* eta *Black & White* taldeen kontzertua, doan, Galtzaur jubilatuen elkartearen, 18:00etan.

9, Irakurketa kluba: *Goseak janak* (Susa, 2018. Idurre Eskisabel). Joanes Jauregik gidatutako saioa, 19:30etan liburutegian.

11, Ipuin kontaketa: *Ipuin kuttunak* saioa Amaia Puin kontalariarekin, 18:00etan liburutegian, 3 urtetik gorakoentzat.

11, Hitzaldia: *Guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa*. Amaia Vazquez psikologoarekin, 18:30etan ikastolako aretoan.

11, Musika. Norberto Almandoz musika eskolako organo eta piano ikasleen entzunaldia, 19:30etan musika eskolan.

12, Korrika, goizaldeko 01:00ean iritsiko da herrira. Horren harira:

Goizean, Herri Eskolako korrika txikia.

19:30etan eta 01:00-03:00, Laiotz taldearekin berbena Joseba Barandiaran plazan.

21:00, Kantu-afaria 21:00etan plazan. Txartelak salgai apirilaren 5 arte, AEKn, Ikatzan eta Zipotzan.

13, Zinea: *Luis eta estralurtarrak*, 17:00etan kultur etxean. Sarrera: bi euro.

14, Familientzako mendi irteera, Mundarro elkarteak antolatuta,

08:30etan Joseba Barandiaran plazatik abituta: Amaiur-Alkurruntz-Amaiur. Nork bere kotxean joan behar du, eta bazkaria eraman. Izen-ematea, kiroldegian.

15-17 eta 23-26, Jolas Txiki kiroldegian 2-5 urte artekoentzat, 09:00-13:00. Izen-ematea, martxoaren 18tik aurrera tokia bete arte.

15-17 eta 23-26, Tailerrak kultur etxean 6-12 urte artekoentzat, 10:15-11:45 eta 12:00-13:30. Izen-ematea kultur etxean apirilaren 3tik aurrera (943 33 50 64).

18-26, Ohiko bisita gidatua eta sagardo, muztio eta likore dastaketaz gain, hainbat gazten dastaketa eta familientzako oka jokoa, Sagardoetxean. Erreserbak: 943 55 05 75 / info@sagardoarenlurraldea.eus

23-24-25, Liburu azoka Joseba Barandiaran plazan 10:00-13:00., liburuaren nazioarteko egunaren harira. Liburu bat, 05 euro; hiru, euro bat. Bildutakoa Grezia eta Etiopiako Zaporeak proiektuetarako izango da.

24, Azstigazte lehiaketan lanak aurkezteko azken eguna. Gaia: sendia. 12 eta 18 urte artekoentzat.

28, Ikuskizuna: *Bihotzaren taupadak*, 17:00etan kultur etxean, 5 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 2,5 euro haurrek, eta 5 euro helduek.

29, Literatur solasaldia: *Las palabras* (Jean Paul Sartre). Jorge Carrerok gidatuta, 19:30etan liburutegian, gaztelaniaz.

HARITUZ ELKARTEA

Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian estreinatuko da, 'Hilos de Sororidad'

Apirilaren 6an jarriko dute dokumentala, 19:00etan Victoria Eugenia.

HARITUZ elkarteak biolentzia sexistaren aurka egiteko sortutako *Matazak indarkeria sexistaren aurka* proiektuaren inguruko istorioa kontatzen du *Hilos de Sororidad* dokumentalak, eta apirilaren 6an estreinatuko da, Donostiako XVII. Giza Eskubideen Zinemaldia-
ren barruan. Arratsaldeko 19:00etan ikusi ahal izango da, Victoria Eugenia, 4,5 euroan.

Ondoren, berriro jarriko dute apirilaren 10ean, 19:30etan Principalen, doan.

Ahizpatasunaren sinbolo, 6 kilometrotako bufanda

Matazak proiektua 2014an sortu zen Astigarragan, eta ordu-tik, Euskal Herrian eta mun-

duan barrena ibili da emakumeenganako indarkeriaren kontra gizartearen sentsibilizatzeari helburua duen bufanda. Horixe baita proiektuaren helburua: «mataza osatzen duen zati bakoitza hutsune bat da, izen bat, lapurtutako bizitza bat, *nahiko da!* dioen ohiu bat», azaltzen du Harituzek.

Hori guztia kontatzeko helburuarekin egin du Eneko Olasagasti zuzendariak *Hilos de Sororidad* dokumentala. 2018an jarri zuen martxan Harituz elkarteak crowdfunding kanpaina, dokumentala egiteko dirua biltzeko. Ordu-rako, 4.800 metroko bufandan zuten josia, eta gaur egun, 6 kilometrotik gora ditu. II

■ PLENOA

Hauteskundeetarako mahai-kideak izendatu dituzte, azken Plenoan

Baztertu egin zen autobus zerbitzuko murrizketen kontrako mozioa; onartu, Beterri-Buruntza mankomunitatean parte hartzea.

OTSAILEKO Plenoaren faltan, pasa den ostegunean egin zen urteko bigarren Plenoa, Udalean. Urtarrileko akta onartuta, apirilaren 28ko hauteskundeetarako mahai-kideak izendatzeko zozketa egin zuten; laster jasoko dute abisua, mahaiaren egotea egokitu zaienak. Bakoitzeko, lehendakaria eta lehenengo eta bigarren bokalak izendatu ziren, eta postu bakoitzeko bina ordeko.

Segidan, aho batez onartu ziren hainbat puntu, EH Bildu eta EAJko zinegotzi guztien aldeko botoekin: 2017-2019ko diru-laguntzen plan estrategikoan aldaketa bat egitea, landalurreko bide eta lursailen udal-inbentarioan herri-bide berri baten fitxa onartzea, Udaleko lanpostuen zerrendaren eta plantila organikoaren zati bat aldatzea udaltzain postu bat hutsik geratu delako eta beste bat eszedentzian dagoelako, eta Ubarburuko zabalpenaren inguruko auzierrekurtsoarekin jarraitzea.

Beste gai batzuk ere onartu ziren aho batez, zinegotzien arteko desadostasunak agertu baziren ere.

Beterri-Buruntzako garapen mankomunitatearekin eta Berdintasuneko Gutunarekin, aurrera

Aho batez onartu ziren puntuen artean, adostu zen Beterri-Buruntza eskualdeko tokiko garapen ekonomiko eta sozialeko mankomunitatearen sorreran «aktiboki parte hartzea». Zorione Etxezarraga alkateak adierazi zuenez, «Astigarragak sorreran parte hartu du», eta nahiz eta «aurrekontuei dagoen udalerri bat baden momentu honetan parte hartu ezin duena, horrek ez du bidea ixten etorkizunerako. Beraz, mankomunitatearen egitura legealdi bukaerarako martxan jartzea» espero da. Andoni Gartzia EH Bilduko bozeramaileak adierazi zuen «izendapenekin ados ez egon arren» aldeko botoa emango zutela. «Astigarragako alderdi bozkatuenari ordezkartza ukatu zaio».

Bestalde, aho batez onartu zen baita ere Berdintasuneko Europako Gutuna sinatzea. Ramon Aranzasti, berdintasun arloko zinegotziak azaldu zuen



Desadostasunak agertu zituzten zinegotziek, aho batez onartutako puntuetan.

Udala urdinez argiztatuko da apirilaren 2an, Autismoaren Munduko Egunean.

«eskumenak ikusarazi eta berdintasunaren aldeko ekintzak babestea» dela gutunaren helburua. Aldeko botoa eman arren, EH Bildutik Andoni Gartzia adierazi zuen «sareetan atxikitze ohitura» dagoela, baina ekintzetan «hankamotz» geratzen dela Udala. «Mozioak onartu eta gero ez da ezer egin; emakumeen biografiekin plakak jartzea onartu zen orain 3 urte eta ez da ezer egin. Atxikituko gara, baina ez dadila horretan geratu».

Garraio publikoak, eztabaida EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen autobus garraio publikoan murrizketarik ez aplikatzeko (www.kronika.eus webgunean ikusgai), eta EH Bilduren aldeko 6 botoak eta EAJren kontrako 6 jaso zituen; beraz, alkatearen kalitateazko botoarekin, baztertu egin zen.

Eztabaida izan zen, EH Bilduren ustez «akatsa» delako mozioa ez onartzea. Gartzia azaldu zuen herritarren inkestetako emaitzak kontuan hartuta, eskatzen diotela Diputazioari eta Batzar Nagusiei autobus zerbitzuan murrizketarik ez aplikatzeko eta ospitaletako linea kontenplatzeko. Nerea Zusberro zinegotziak erantzun zion «udal gobernu talde honek behin eta berriz eskatu duela Astigarragako zerbitzua bere horretan uztea eta herritarren inkestak kontuan hartuta, ospitale eta unibertsitateetarako linea jar-

tzea». Beraz, mozioko puntu batzuk martxan daudelako eta beste bat Udalaren eskumena ez delako, kontra bozkatu zuten; «berresten dugu PSEk azaroan aurkeztutako mozioa». Alkateak gehitu zuen «elkarlanean» ari direla Mugikortasun Sailarekin eta ez dutela erakundeen arteko liskarretan sartu nahi. «Zer gertatzen den ikusi, eta herria kaltetuz gero, tribunaletara joko dugu, behar bada».

Autismoaren egunean, argia Plenora eraman zen EH Bilduren beste mozio bat ere, Martxoaren 8ko greba feministak babesteko, baina dagoeneko zentzurik ez zuelako bozkatu gabe geratu zen. Alkateak azaldu zuen aurkeztu eta hiru hilabeteko epean Plenora eraman behar direla mozioak, eta Andoni Gartzia kexu azaldu zen Berdintasun Batzordean bozkatu gabe geratu zelako eta otsailen Plenorik egin ez zelako.

Bukatzeko, aho batez onartu zen herritar baten mozioa, Autismoaren Munduko Egunean udaletxea urdinez argiztatzeko eskatzen duena. Apirilaren 2a da Autismoaren Munduko Eguna, eta Gautenak bat egin du LIUB kanpainarekin; Udala urdinez argiztatuko da asteartean, eta herritarrei eskatzen zaie argazkiak egin eta Gautenako sare sozialekin partekatzeko.

Azkenik, galdera eta erregetan, EH Bilduk informazioa eskatu zuen Haurreskola, DBH, Ergobiako zubia, Anuskako irisgarritasuna eta bete hainbat konturen inguruan. Azalpenak eman zituen Zorione Etxezarraga alkateak, eta gai batzuk datorren asteko Hirigintza Batzordean landuko direla argitu zuen. ■

■ NORBERTO ALMANDOZ MUSIKA ESKOLA



'I want to break free' abestia eskaini zuen atzo, Ilargia talde astigarrak.

Bi emanaldi, apirilerako

Zaharren Egoitzan emango dute kontzertu bat ikasleek 9an, eta eskolan, 11n.

MUSIKA Eskolako talde modernoek kontzertua eman zuten atzo, Lezoko Tomas Garbizu musika eskolako ikasleekin batera.

Apirilerako, berriz, beste bi emanaldi prestatu dituzte. Ba-

tetik, apirilaren 9an Zaharren Egoitzan joko dute, 18:00etan, *Rock For Ever* eta *Black & White* taldeek. Bestetik, hilaren 11n, organo eta piano entzunaldia emango dute ikasleek, musika eskolan, 19:30etan. ■

■ GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Zorione Etxezarraga, Markel Olano eta Ainhoa Aizpurua, Astigarragako bisitan.

«Gipuzkoak daukan gizarte aktiboa altxor bat da»

Astigarragako Stua enpresa eta gizarte zerbitzuak ezagutu ditu Markel Olanok.

ERAKUNDE bisita egin zuen astelehenean Gipuzkoako Foru Aldundiak, Astigarragan. Zorione Etxezarraga alkatearekin bildu ziren Markel Olano diputatu nagusia eta Ainhoa Aizpurua, Ingurumeneko eta Lurralde Oreako diputatua.

Alkateak nabarmendu zuen Astigarragak badituela «erronka berriak, zabaltzen ari delako, eta ez bakarrik zerbitzuen sektorean, baita ere, zerbitzu sozialetan». Horri helduta, Olano diputatu nagusiak azpimarratu zuen «enpresa lehiakorrek

behar direla, baina baita ere, «gizarte zerbitzuak, inor bazterrean uzteko». Zentzu horretan, nabarmendu zuen «Gipuzkoak daukan gizarte aktiboa altxor bat» dela, eta enpresa, gizarte eta erakundearen artean «elkar-lana funtsezkoa» dela, lurraldeak aurrera egiteko.

Hain zuzen, bileraren ondoren Stua enpresa bisitatu zuten, «gure ekonomia eta enplegua bultzatzeko eredu arrakastatsua» sustatu izanaren eredu delako. Bukatzeko, herriko gizarte zerbitzuak ezagutu zituzten. ■

■ ERGOBI GASTRONOMI-KULTUR ELKARTEA EUSKAL JAIA

Euskal Jaia bihar, Ergobiako elkartearen urteurreneko festa

Bihar 11:00etatik aurrera izango da festa giroa: pintxoak, sukaldaritza tailerra, sagardoa, ipuin kontalaria, herri kirolak...

URTEBETE egin du Ergobi Gastronomi-Kultur Elkartek, eta ospatzeko, Euskal Jaia egingo da bihar, egun osoan zehar, Ergobiako Plazan.

Elkarteko kide Oscar Bezeziartuaren esanetan, helburua da «auzoan giro ona sortzea», eta ahal dela, festa urteroko ohitura bihurtzea nahi dute. «Ea festa hau urteroko Ergobiako Euskal Jaia bihurtzen dugun».

Gaztetxo eta helduentzako egitaraua, egun osoan

Lehengo urteko martxoan sortu zuten Ergobi Gastronomi-Kultur Elkartea, auzoa haunditzen ari dela-eta, bertako bizilagunak elkartu eta auzoa girotzeko asmoz. Helburu bera du biharko prestatu duten egitarauak ere; festa giroan, haur, gazte eta helduak elkartzea.

Bihar goizeko 11:00etan hasiko da festa giroa nabaritzen. Ordu horretatik aurrera trikitilariak ibiliko dira auzoan, eta txorixo egosi pintxoak izango dira aukeran. Era berean, egun osoan zehar ariko da ETO DJ musikarekin giroa jartzen, eta Bikain eta Beizama tabernak irekita egongo dira, zerbait jan edo edan nahi duenarentzat.

Ekitaldiei dagokienez, goizeko 11:30etan sukaldaritza



laz bezala, haur, gazte eta helduentzako festa izango da biharko Euskal Jaian.

ERGOBIA - EUSKAL JAIA	
MARTXOAK 31	
11:00 , txorixo egosi pintxoak.	15:30 , ipuin kontalaria txikientzat, Ergobiako Plazan.
11:30 , bakailaoa saltsa berdean eta oilaskoa sagardo erara prestatzen ikasteko tailerra, Hur Astarbe sukaldariarekin.	16:30 , Ergobiako Plazan erakustaldia Emari taldearen eskutik. Ate irekiak egingo dira.
13:00 , Sagardo Apardunaren dastaketa ByHur-en eskutik.	18:00 , herri-kirolak.
14:00 , goizean prestatutako bakailaoa eta oilaskoa dastatzeko aukera.	<i>*Goizeko 11:00etatik bazkalordura arte trikitilariak ibiliko dira jotzen.</i>
	<i>*Egunean zehar, ETO DJ ariko da giroa alaitzen.</i>
	<i>*Bikain eta Beizama tabernak irekita egongo dira.</i>

tailerrean hartu ahal izango da parte Hur Astarbek gidatuta: bakailaoa saltsa berdean eta oilaskoa sagardo erara prestatuko dira, eta 14:00ak aldera dastatu ahal izango dira. Tartean, 13:00ean, Sagardo Aparduna dastatu ahal izango da, baita ere, ByHur-en eskutik.

Bazkalondorenean, arratsaldeko 15:30ak aldera, haurrei zuzendutako ipuin kontaketa izango da, eta 16:30etan, erakustaldia egingo du Emari taldeak. Nahi duenak probatzeko aukera ere izango du.

Eguna borobiltzeko, herrikirolen erakustaldia egingo da, 18:00etan hasita. II

■ GAZTELEKUA

Aste Santuko oporretarako ekintzak prest, Gaztelekuan

Hilaren 18tik 22ra itxi arren, aurreko egunetan ekintza bereziak izango dira.

KORRIKA kulturalarekin lotutako jaia izango da gaur Gaztelekuan, eta henna tailerra bihar, martxoko egitarauarekin bukatzeko. Apirilekoa ere prestatu dute dagoeneko, eta Aste Santuko oporraldiak medio, ohiko egutegia aldatu egingo da zertxobait. Horrela, hilaren 15, 16 eta 17an, astelehenetik asteazkenera, ireki egingo da eta ekintza bereziak egingo dira, eta baita 23, 24, 25 eta 26an ere. Baina apirilaren 18tik 22ra itxi egingo da.

Irteerak eta ekintza bereziak, opor egunetan

Ohi bezala, astebururo ekintza bereziak egingo dira, eta asteartetik ostiralera ireki egingo da Gaztelekua. Dena den, Aste Santuko oporretako bi asteetan, aldatu egingo da ohiko ordutegia.

Apirilaren 15, 16 eta 17an, esaterako, irekita egongo da, eta jolas librea, krepak egiteko sukaldaritza tailerra eta Uliara irteera prestatu dira. Gauza bera gertatuko da hurrengo astean: hilaren 22a itxita egongo da, baina 23tik 28ra ireki egingo da, eta hainbat ekintza berezi egin ahal izango dira; tartean, hilaren 24an, Irrisarrilandera irteera.

Dena den, hilaren 18tik 22rako tartean, asteburua barne, itxita egongo da lokala.

■ UDALA

Udaltzain posturako, oposizioa

Martxoaren 21eko GAO n argitaratutakoaren arabera, Udalak onartu egin du udaltzain postu baterako oposizio-lehiaketa martxan jartzea. Lanpostu bat aterako da lehiaketara, eta besteak beste, bigarren hizkuntz eskakizuna bete beharko du. Xehetasunen berri aurrerago argitaratuko da. II

■ SAGARDOAREN LURRALDEA

Sagardogintzari lotutako emakumeen berri bihar, azkenekoz

Maria Labayen, Maria de Echevarria, Ana de Beroiz y Fagola eta Maria Josefa de Orobio dira Sagardoetxeako erakusketan ezagutu daitezkeen lau emakume. XVI eta XVIII, mendeetan zehar sagardogintzari lotuta lan egin zuten emakume ekintzaileen berri jasotzen da bertan, eta biharkoa da erakusketa bisitatzeko azken eguna; bihar, gainera, bisita gidatua egin ahal izango da 11:00etan, doan, aurretik erreserba eginda, info@sagardoarenlurraldea.eus emaillean edo 943 55 05 75 telefonoan. Bestalde, Aste Santuari begira ekitaldi bereziak prestatzen ere hasi dira: apirilaren 18tik 28ra sagardoaz gain, gazta desberdinak dastatzeko bisita bereziak ere egingo dira. II

APIRILEKO AGENDA
6 , Sukaldaritza.
7 , Argazki lehiaketa.
13 , Euskal karaokea.
14 , Tailerra.
15 , Jolas librea.
16 , Sukaldaritza: krep gazi-gozoak.
17 , Irteera, Uliara
23 , Ping-pong txapelketa ikastolako patioan.
24 , Irteera, Irrisarriland-era.
25 , Afaría eta pelikula.
26 , Jolas librea.
27 , Ginkana.
28 , Tailerra: zuku potea.
ORDUTEGIA
● Astelehenetan, itxita, 15a izan ezik, eta apirilaren 18tik 22ra, Aste Santua dela-eta, itxita.
● Asteartetik ostegunera, eta igandetan: 17:00-20:00.
● Ostirala eta larunbata: 16:30-20:30.

Logo berria prestatzen

Bestalde, Gaztelekuko logo berria aukeratzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Dagoeneko bukatu da hiru proposamenetako bat aukeratzeko epea, eta orain, proposamenak egiteko epea ireki da; biharkoa izango da horretarako azken eguna.

Proposamenetako batek 16 boto jaso ditu; beste batek, 26, eta boto gehien jaso dituenak, 82 jaso ditu. Hori kontuan izanda, eta proposatutako aldataketak eginda, Behin betiko logoa apirilean aurkeztuko da. II

■ ELKARTASUN TOPA

Elkartasun topa eta bazkarirako txartelak salgai, Zipotzan

Apirilaren 7rako antolatu du festa euskal preso eta iheslarien aldeko Astiarrako lagunak taldeak: bazkaria, musika...

APIRILARI festa giroan eman-go diote hasiera herrian, Astiarrako lagunak taldeak antolatutako Elkartasun Topa egunean. Apirilaren 7rako jarri du hitzordua euskal preso eta iheslarien aldeko taldeak: eguerdiko 13:00ean Zipotzan elkartuko dira, elkartasun topa egiteko. Hortik aurrera,

egun osoan zehar luzatuko den egitarauarekin gozatu ahal izango da.

Topa egin ondoren kalejira abiatuko da 14:00etan, eta elkartasun bazkaria 14:30etan egingo da. Arratsaldean ere segi ahal izango da giro onean, DJ Jotatxok jarritako musikak lagunduta.

Txartelak salgai, haur eta helduentzat

Bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko Zipotza elkartearen.

Prezioa desberdina da haur nahiz helduentzat: 10 euro dira aurrenekoen kasuan, eta 20 euro bigarrenengo kasuan. II

TXIRRINDULARITZA



Zarautzen hartu zuten parte Donosti Berrin ari diren 9 txirrindulari astigartarrek ere.

Beste bost lasterketa asteburuan, txirrindulari astigartarrek

Donostia Saria, Espainiako Kopa eta Madison Txapelketa, Antzuolako Uzarragara Igoera eta Gorlakoa dituzte jokoan.

MAILA guztietako txirrindulariek egin behar izan zuten lan pasa den asteburuan, eta gauza bera gertatuko da oraingo honetan ere. Batetik, alebin eta infantil mailetakoz gaztetxoek Loiolan jokatu den Donostia Sarian hartuko dute parte. Bestetik, Jaime Romero eta Telmo Semperena juniorrak Valentzian dira, gaur Espainiako Kopa jokatzeko, eta bihar, Espainiako Madison txapelketa. Romerok Asier Pozorekin hartuko du parte, Bazpiren alde, eta Semperenak Donosti Berritik, Gaursako Markel Rodriguezekin, Euskadiko Selekzioaren alde. Bestalde, Enekoitz Azparren Antzuolan izango da gaur, Uzarragako XLV. Igoeran parte hartzeko. Bera da faborito, arratsaldean egingo den

81 kilometrotako proba irabazteko. 23 urtez azpikoei dagokienez, Gorlako XIV. Igoeran hartuko dute parte bihar. Zarautzen maila polita, gaztetxoek Dagoeneko egindako lanei dagokienez, pasa den larunbatean Zarautzen jokaturako lasterketan izan ziren alebin eta infantil mailetakoz 9 txirrindulari astigartar. Alebinetan, Zumaiako Asier Aizpurua izan zen txapeldun, eta astigartarren artean, Aimar Zabala izan zen azkarrena, 14garren iritsita. Atzetik iritsi ziren helmugara Aimar Capdequi (16), Beñat Auzmendi (26), Danel Txapartegui (23), Unai Hernandez (37), Ekhi Rabanedo (40 eta Mattin Plazaola (41).

Infantiletan, berriz, Irungo Dinuyko Gorka Fernandez izan zen txapelduna, eta Tasio Semperena eta Eneko Oliveira astigartarrek bosgarren eta 14garren egin zuten, hurrenez hurren. Juniorrak Montegudon izan ziren: Telmo Semperena 33garren izan zen; Jaime Romero 72garren; eta Enekoitz Azparren 73garren. Azkenik, 23 urtez azpikoei, Xabier Mikel Azparrenek bi lasterketetan hartu zuen parte: Laukizen taldekako garaipena lortu zuen Goierriko TB-Caja Laboralekin larunbatean, eta baita igandean ere, Lizarran, Cirilo Zunzarren Memorialean. Azken honetan Urko Sempere ere hartu zuen parte, Eibar Hiri Energia taldearekin, baina antolakuntzak erretiratutako taldean zijoan. II

MUNDARRO FUTBOLA

Hernaniren kontrako derbia bihar, bigarrena harrapatzeko borrokan

Zubipen, hernaniarren etxean jokatu du bihar Mundarrok, 18:30etan. Azken bi garaipenen lerrotik jarraitzen saiatuko da.

IKARAGARRIZKO lana egiten ari da Mundarro denboraldi honetan, eta tinko eusten ari da sailkapeneko hirugarren postuan. Hori indartu, eta bigarren sailkatua harrapatzeko borrokatzeko prest dago orain. Bost jardunaldi gertatu dira Liga bukatzeko, eta

ez du aukerarik pasatzen utziko. Bide horretan, biharkoa izango du aurreneko erronka: Hernaniren kontrako derbian neurtu beharko ditu indarrak, 18:30etan Zubipen. Azken bost partiduetatik lau galduta iritsiko dira areioak, azkenekoa barne, eta

astigartarrak, berriz, azken bietan garaipena lortuta, eta aurrekoak berdinduta. Hori horrela, gauzak ondo ateraz gero, hiru puntuekin etxeratzeko aukera izan dezake Mundarrok, eta bigarren dagoen Touring harrapatzeko puntuan jartzekoa. II

ESKU PELOTA BERRIA TXAPELKETA

Lizarrakoak, Berriako aurreneko aurkariak

Bihar hasiko da Berria Txapelketa pelotari astigartarrentzat, Andoainen.

PELOTARI astigartarrak bihar sartuko dira Berria Txapelketan. Aurreneko aurkariak Lizarrako San Miguel taldekoak izango dituzte. Biharko hiru partiduko Andoainen jokatu dituzte, arratsaldeko 16:30etan hasita.

Nagusietan, Harri Loidi eta Jokin Santxezek defendatuko dute Astigarraga. Jubeniletako bikotea, berriz, Axel Larrañaga eta Ganix Urdangarinek osatuko dute. Azkenik, kadeteetan, Ekain eta Eñaut Lizeaga anak ariko dira. II

ASTIGARRAGA DBH



Asteazkenean egin zuen bilera berriro, Astigarraga DBH taldeak.

DBHren aldeko banderolak, dendetan Asteazkenean bildu zen berriro Astigarraga DBH taldea, herrian institutua eraikitzearen aldeko lanean jarraitzeko. Oraingoan, DBH eraikitzearen aldeko banderolak balkoietan jartzeko eskatu dute, eta hainbat dendetan salgai jarri dituztela jakinarazi dute: Merke Azoka, Zubitxo, Ixa Coviran, Aliciaren fruta denda, Ikatz, More kolore ileapaindegia, Kiriketa Haurreskola, JTM botika, Ametxa Haurreskola, Maieko ileapaindegia ekologikoa, Beizama eta Dastatzen komertzioetan, hain zuzen. Era berean, sare sozialetako profiletako irudian banderolaren irudia jartzeko deia ere egin dute. II

KIROL TABLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Mut. Erregional Preferenteak	Hernani-Mundarro	Zubipen	Bihar 18:30
Mut. Erregional Lehen. Maila	Landebai-Mundarro	Ugalde-Ventás	Gaur 15:30
Mut. Jubenilak Ohor. maila	Hernani-Mundarro	Zubipen	Bihar 12:00
Mut. Jubenilak 1go maila	Mundarro-Urtebil	Zarkumendegin	Gaur 17:45
Mut. Kadeteak Ohor. maila	Mundarro-Hondarribi	Zarkumendegin	Gaur 15:45
Mut. Kadeteak 1go maila	Martutene-Mundarro	Martutenen	Gaur 13:30
Mut. Infantilak 1go maila	Mundarro-Oretea Kale	Zarkumendegin	Gaur 11:00
Mut. Infantilak 1go maila	Amara Berr-Mundarro	Martutenen	Bihar 10:30
SASKIBALOI			
Nsk. Gipuzkoako 2. maila	Mundarro-Ordizia	Kirodegian	Gaur 18:00
Mut. Gipuzkoako 1. maila	OKS-Mundarro	Benta Berin	Gaur 12:00
Mut. Juniorak	Mundarro-Goierri	Kirodegian	Gaur 16:00
Nsk. Kadeteak	Mundarro-Atxikori	Kirodegian	Gaur 11:15
Mut. Kadeteak	Easo 04-Mundarro	Jesuitetan	Gaur 09:00
Mut. Infantilak	Mundarro-Garibari	Kirodegian	Gaur 09:30
ESKUBALOI			
Nsk. Jubenilak	Mundarro-Urola	Kirodegian	Bihar 11:00
ESKU PELOTA - Berria Txapelketa			
Nagusiak	Harri Loidi-Jokin Santxez/San Miguel	Andoainen	Bihar 16:30
Jubenilak	Axel Larrañaga-Ganix Urdangarin/San Miguel	Andoainen	Bihar 16:30
Kadeteak	Eñaut Lizeaga-Ekain Lizeaga/San Miguel	Andoainen	Bihar 16:30

■ GOIZUETA ETA ARANO

Hirugarren edizioa, ‘Irakurri, gozatu eta oparitu’ ekimenak

Irakurzaletasuna hedatzea xede duen kanpaina dagoeneko hasia da, eta maiatzaren 31ra arte luzatuko da liburutegi eta dendetan.

EUSKALTZALEEN Topaguneak eta Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzuek antolatuta, *Irakurri, gozatu eta oparitu* ekimena jarri zuten martxan aurreko astean, eta maiatzaren 31ra bitarte luzatuko da. Hirugarren edizioa izanen dute, aurtengoa.

Euskerazko liburuak irakurtzea, helburu

Ekimenaren helburua da «herritarrak euskarazko liburuak irakurtzera animatzea, irakurtzearen alde atsegina azpimarratuz eta liburutegi publikoen zerbitzuen erabilera sustatuz», azaldu dute antolatzaileek.

Horretarako, «besteak beste, parte hartzea saritzen du egitasmoak, liburuak erosteko abantaila ekonomikoak emanez, eta liburuak opari bihurtze-

Goizuetar eta aranoarrek Hernaniko Elkarren trukatu ahal izanen dituzte erosketa-txekeak.

ra gonbidatuz».

Hiru pausu, parte hartzeko

Hori lortzeko, ordea, hiru pausu eman beharko ditu irakurleak.

Aurrenekoa, *irakurtzea*: «herriko liburutegi publikora joan, eta euskarazko edozein liburu maileguan eskatu ahal izanen duzu». Bigarrena, liburuarekin gozatzea, hau da, «liburua irakurri, liburutegira itzuli, eta fitxa erraz bat bete: zein izan den irakurritako liburu eta zer iritzi dugun. Fitxa

hori beteta, liburuzainak erosketa-txekea emango digu, hitzartutako liburu dendan erabiltzeko».

Eta hirugarrena, lagun bati, senide bati, edo norbere buruari oparitzea.

Deskontuak, euskarazko liburuetan

Liburutegian jasotako txekeari esker, %35 merkeago erosteko aukera izanen da. Gainera, apirila eta maiatza bukaeran 30 euroko balioa duen txeke bana zozketatuko da liburutegi bakoitzean. Euskerazko edozein liburu erosteko balio izanen du.

Goizuetar eta aranoarren kasuan, Hernaniko Elkar liburutendand trukatu ahal izanen dute txekea. Ekainaren 15era bitarte izanen da aukera, nahiz eta ekimena maiatzaren 31n bukatu. ■

■ GOIZUETA EH BILDU

Herri Batzarra gaur, herri hauteskundeez

Goizeko 11:00etan hasita izanen da, udaletxeko areto nagusian.

MAIATZAREN 26ko udal hauteskundeen aurrean, EH Bilduk dagoeneko iragarri du Unai Miranda izanen dela Goizuetako alkategaia.

Modu ofizialean aurkeztuko dute Mirandaren hauta-

gaitza gaurko Herri Batzarrean. Goizeko 11:00etan izanen da hori, udaletxean.

Batzar honetan ere, Herri Programaren proposamena aurkeztuko du gaur Goizuetako EH Bilduk. ■

■ ARANO BAKE EPAILEA

Bake epailea eta ordezkoa, hutsik

Apirilaren 11ra arteko epea izanen da aukera eskaerak egiteko.

BAKE Epailearen eta haren ordezkoren postuak hutsik geratu dira Aranon; hori horrela, deialdi publikora atera du Udalak, berriro ere. Hala ezartzen baitu Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. artikulua eta Bake Epaileen 1995eko 3. zenbakidun Erreklamatuaren 5. artikulua.

Eskaerak, udaletxean

Hortaz, Bake Epaile izateko hautatua izan nahi duenak

apirilaren 11ra arteko epea izanen du eskaera egiteko. Eguerdiko 12:00ak arte izanen da aukera, Aranoko udaletxean.

Hain zuzen, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita 15 eguneko epea emanen da.

Aurkeztu ahal izateko, aurretik aipatutako Lege eta araudiak agintzen diren baldintzak bete behar ditu herritarrak. ■

■ EREÑOTZU

Odola emateko zita, astelehenean

Arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara bitarte eman ahal izango dute odola ereñotzuarrek, Auzo Etxeko areto nagusian.

HERNANIARREK baino egun bat lehenago izango dute ereñotzuarrek aukera odola emateko, astelehenerako jarri baitute zita Auzo Etxean. Ohi bezala, arratsaldeko 18:00etatik iluntzeko 20:30etara izango dute aukera auzotarrek odol-estrakzioak egiteko.

«Pertsonen odol-emate altruistak dira odola lortzeko iturri bakarra»

Beti bezala, deia egin diete 18 eta 65 urte bitartean eta 50 kilo baino gehiago pixatzen duten herritarrei, odola eman dezaten. Izan ere, Euskadiko Odol Emaileen elkarteak dioenez, «medikuntzaren eta teknologiaren aurrerapenak gorabehera, oraingoz odola ez da fabrikatzen eta, hortaz, pertsonen odol-emate altruistak dira odola lortzeko iturri bakarra». ■



Ohi bezala, Ereñotzuko Auzo Etxean eman ahal izango da odola etzi.

■ EREÑOTZU UR-MIA ELKARTEA

Urteko batzarra, bihar zortzi

Urteko batzarrerako deia egin du Ur-Mia elkarteak hurrengo asterako. Bihar zortzi, igandez, egingo dute, goizeko 10:00etan hasita elkarte bertan. Halaber, jakinarazi dute egun horretan itxiko dutela mus txapelketarako izenematea. ■

■ EREÑOTZU FAGOLLAGAKO IKASLEAK

Isabel Espinacorekin ikasitakoek, zita

Fagollagako Eskolan Isabel Espinaco Lera irakaslearekin ikasitakoek bazkaria egingo dute maiatzaren 5ean. Urrietako Oianume Jatetxean izango da, eta joan nahi duenak apirilaren 7ra arte dauka aukera izena emateko: 676 837 910 (Osta), 688 686 010 (Mila) edo 699 297 660 (Xagari). ■

■ GOIZUETA ESKU PILOTA

Beste lau partida, asteburu honetan

Nafar Jokoak Txapelketako hirugarren faseari jarraituz, beste lau partida izanen dituzte goizuetarrek, gaur eta bihar. Gaurkoa Atarrabia izanen da, 12:00etan, Paz Zigandaren kontra. Eta beste hirurak bihar Errekaren kontra, Goizuetan bertan, 11:00etan hasita. ■

GAUR Zeruak garbi jarraituko du eta haizeak hego-ekialdetik joko du. Giroa, beraz, epela izango da. Arratsaldean, dena den, brisa sartu liteke, eta ondorioz, ez du hainbeste berotuko. **Min.9° / Max.21°**

BIHAR Goizean giroa eguzkitsua izango da oraindik, baina arratsaldean lainoak sartuko dira pixkanaka eta zaparrada trumotsuren bat bota dezake. Horrekin, iparraldeko haizea sartuko da. **Min.9° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: Aizpuru** Latsunbeberri, 11 (Hernani) **943 336077** Gauez: **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



TELESAILTAN ADI(K)TUA



AITOR CARACCILO

The Oa

artean sartu zaizkit, baita ere: *Hanna, Osmosis, On my block...* Ikusten duzuenez, zerrenda amaigabea.

Dena den, hauen denen gainetik dagoen estreinaldi handi bat izan dugu hilabete honetan. *THE OA* telesailaren itzulera. Bere bigarren denboraldia estreinatu du Netflix plataformak, lehenengoa estreinatu eta hiru urte beranduago.

2016ko abenduan kaleratua, *Prairie Johnson* gaztearen bizitzan sartzen gintuen; zazpi urtez desagertua egon ostean, bere etxera bueltatzean hasten zitzaigun telesaila. Baina ez hori bakarrik; itsua zen neska-toak ikusmena berreskuratuta egiten baitzuen buelta. Zer gertatu zen urte haietan? Nola liteke? Zortzi kapitulutan zehar misterio horiek argitu eta beste hainbeste aurkeztu zizkigun kontakizun paregabe honek era berean, *cliffhanger* (bukaerako suspensedun eszena irekia) galantarekin izan zuen amaiera. Bere momentuan ikusle guztiak txunditurik eta beldur-



Bigarren denboraldia estreinatu denez, *The Oa* telesaila gomendatzen du Caracciolo.

turik utzi gintuen. Hala bukatzekoa ote zen telesaila? Ez al zen gehiagorik izango? Zorionez eta zoritxarrez, bere buelta izango zela esan baziguten ere, arazo txikitxo bat genuen; noiz izango ote.

Ikusi ez duzuenontzat paregabea den notizia da, artikulu hau irakurri ostean bikaina den lehen denboraldia ikusteko aukerarekin batera, bigarreneko zortzi kapitulu berriak ere ikusteko aukera izango duzuela, guk pairatu dugun ezinegona sufritu gabe. Era honetan, 'beteranoak' garenekin, Aliziak ipuinean egiten zuen modura, untxiaren gordelekutik barrena

dagoen toki ezezagun berrietara joango zaigun istorio misteriotso eta galdera berriz beteak ezagutzera iritsiko gara. Gure jakinmina asetzekotan gauden momentuan, hala ere, zer gutxi dakigun eta zenbat gauza berri ikusi behar dugun ezagutuko dugu.

Asko dute kontatzeko telesail honetan, eta asko da bizi eta gozatu behar duguna guk ere. Nik pertsonalki gauza bakarra eskatuko diot Netflix webguneari. Ez ditzala 3 urte behar produzio paregabe honen hirugarren denboraldia egiteko, mesedez! ||

IRAGARKI MERKEAK

Tailer mekanikoa salgai Hernanin. Lizentziak indarrean ditu eta makineria guztia prest.

Bezera kartera haundia eta errentagarritasun frogagarria. **Deitu: 656 709 251**

Balantxa liburudenda traspasoan, jubilazioagatik. **Deitu: 676 864 407**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

ASTE SANTUA	PALERMO Apirilaren 17an Bilbotik hegaldi zuzena 5 gau 4* hotelean, gosaria barne	755 €	RIVIERA MAYA Apirilaren 29an Madrilik hegaldia 7 gau 5* hotelean, DENA BARNE	890 €
	ESTAMBUL Apirilaren 18an Iruñatik hegaldi zuzena 4 gau 3* hotelean, gosaria barne	744 €	IBIZA Maiatzaren 20an Bilbotik hegaldia 9 gau 3* hotelean, pentsio osoan	459 €
	SITGES Apirilaren 22an 6 gau 3* hotelean, gosaria barne	255 €	GRAN CANARIA Maiatzaren 25ean Bilbotik hegaldia 10 gau 3* hotelean pentsio osoa, EDARIAK BARNE	659 €
	SALOU Apirilaren 22an Donostiatik autobusa 6 gau 3* hotelean, pentsio osoan	248 €	ZANZIBAR Ekaina eta Uztailen Madrilik hegaldia 7 gau 5* hotelean, pentsio erdian	1390 €
	LANDAK Apirilaren 22an 6 gau 2/4 laguntzako bugalowa 324 € 4/6 laguntzako bungalowa 366 €	366 €	VIETNAM Uztaila eta Irailen Bilbotik hegaldia 10 eguneko zirkuitua, pentsio erdia + bixitak barne	1575 €
	OPORTO Apirilaren 25ean Bilbotik hegaldi zuzena 3 gau 3* hotelean, gosaria barne	395 €	ZANZIBAR	
	VIENA Apirilaren 25ean Bilbotik hegaldi zuzena 3 gau 3* hotelean, gosaria barne	425 €		
	2019 UDA, BIDAIAK TALDEAN Thailandia, Groenlandia, Txina...			
	Marco Polo			

www.bidaibila.eus

Taldeentzako prezio bereziak

HERNANI

BIDAIAK

Urtia, 6

943 33 00 49

JARRAITU: